

Herririk Herri | 2

Guardia Zibilak kuartela utzi eta herriari emateko eskatu du Durangoko Udalak



Berbaz | 10

M. Basterretxea: "Umeaz arduratzeaz gainera, paperak egiten gabiltza zorutzen"

Kultura | 13

lheskide laukoteak '...Irabazi arte!' disko berria aurkeztuko du zuzenean, bihar

DURANGALDEA | 7

25 urtetako ibilbidea oroitu du Lanbide Ikastetxeak

Amankomunazgoko, udale-tako eta ikastetxeetako arduradunak bildu ziren ospakizun ekitaldian, atzo.



ABADIÑO | 4

El Material Aislante likidazio eske joango da epaitegietara

UDA OIN AZPIAN



Durango | 3

Maketa batean ikusi ahal da zelakoa zen Erdi Aroko Durango

Otxandio | 6

Euskararen erabilera bultzatzeko lip dub bat grabatuko dute

Atxondo | 6

Etxebizitzaren kooperatibari buruz, azalpenak emango dituzte

Iurreta | 8

Goiuriako ibarbideen auzian jarraitu ahalko du alkateak

KIROLA | 15



"Herrikideen erantzuna oso pozgarria izan da"

Koikili Lertxundiren lagunartea ofizialki aurkeztu dute Otxandion. Bost urtez Athleticen jokatu eta gero, ibilbide berri bati ekingo dio orain.

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

EITUA INDUSTRIALDEA,
45 GARAIA A
48240 BERRIZ

TEL./FAX: 94 682 41 43
MUG: 658 75 84 21
INFO@JAI OBARNIZATUAK.COM

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGO

Guardia Zibilaren kuartela herriari ematea eskatu dute

Ertzaintzak polizia integrala izan behar duela diote EAJk, Bilduk eta Aralarrek



Guardia Zibilak Durangoko Montorretan daukan kuartela.

Igerilekuetan obra berri bat egiteak polemika sortu du

Bildu eta Aralar kontra agertu dira, ez dutelako uste obra udalak ordaindu beharko lukeenik

Landakoko igerilekuen kiroldegian aldagelak eta spinning gela klimatizatuko dituzte. Udalaren soberakinetik 52.000 euro hartuko dituzte horretarako. Alderdi guztientzako da beharrezkoa, baina udalak ordaindu behar duen, ez daude denak ados. EAJk, PSE-EEk eta PPk onartu dute inbertsioa egitea; Bildu eta Aralar kontra agertu dira. Obra enpresari eta gobernu taldeari hartu diote kargu.

Bilduko Eider Uribe kesan du lana beharrezko ikusten dutela, baina igerilekuen proiektuak gabezia asko izan dituela hasieratik. Zalantzak agertu ditu: "Nork ikuskatu eta sinatu zuen obra, hainbeste akatsekin? Durangarrek ordaindu behar al dituzte hasierako akatsak?". Aurreratu duenez, inbertsioak suposatzen badu erabiltzaileei gehiago kobratzea, ez dute onartuko.

Aralarreko Dani Maeztuk kritikatu du proiektuaren hasierako 7 milioi euroak 12 izatera pasatzela, eta geroztik 340.000 euro erabili direla hobekuntzak egiteko.

Diaz (EAJ): "Erreklamazio guztiak egingo dizkiogu behar duenari"

"Ez dugu uste errakuntzak durangarrek ordaindu behar dituztenik". Oraindik proiektuaren akatsen txostenaren zain daudela dio.

EAJko Goiztidi Diazen berbetan, txostena egiten dabil tza: "Erreklamazio guztiak egingo dizkiogu behar duenari; jakin dezatela durangarrek bagabiltzala egin beharreko lanak egiten".

PSE-EE eta PPren ustez, arduragabekiaz jokatu dutenak zein diren jakin behar da. PSE-EEk "asko kostata" eman du baieztza. Sozialisten iritziz arduradunei ekarri behar dizkie ondorioak. Baina, bi alderdientzako urgentziazko obra da. ■ M. Onaindia

Udalaren soberakinetik 52.000 euro hartuko dituzte horretarako

Uribe (Bildu): "Nork ikuskatu eta sinatu zuen obra, hainbeste akatsekin?"

Euskaltegiatarako diru murrizketen kontra

EUDELegaz sinatutakoa betetzea exijitu diote Eusko Jaurlaritzari EAJk, Bilduk eta Aralarrek

"Eusko Jaurlaritzak eta HABE udal euskaltegien etorkizuna arriskuan jartzen ari dira". Hori dio EAJk, Bilduk eta Aralarrek onartutako udal mozioak. Jeltzaleek eroan dute gaia udalbatzara. Jaurlaritzak udalei euskaltegiak finantzatzeko

PSE-EE eta PPren zatitza, Jaurlaritzak egindakoa diru-egokitzapena da

Jabetza zergengatik Elizak ordaindu beharko lukeena baloratuko dute

Erljio erakundeei tratamendu fiskal bera aplikatzeko eskatu du udalak

Espainiako Gobernuak Elizak katolikoa egindako hitzarmenaren ondorioz, Elizak ez du ordaintzen Ondasun Higiezinengaineko Zerga. Erljio erakundeei gainontzeko instituzioei lako tratamendu fiskala ezartzea eskatu dio udalak Gobernuari. Gainera, "Europako Batzordearen kritikei kasu egin eta akordio horiek errebisatzea" gura dute. Erljio erakundeei ordaindu beharko luketena baloratuko, jabetzen zerrenda egingo duela adierazi du udalak.

PSE-EEren ekimenez landu dute gaia, eta PPk ez beste guztiak onartu dute. PPko Juan Jose Gastañazorreren ustez, Elizak egiten duen gizarte lanari esker diru asko aurrezten da. Ara-

larreko Dani Maeztuk erantzun dio Caritasek ez daukala irabazi asmorik, baina Elizak orokorrean baietz. PSE-EEko Pilar Riosek gaineratu du, adibide legez, udal euskaltegia Elizaren eraikin batean egon dela hogei urtean, eta

Eliza katolikoak ez du ordaintzen Ondasun Higiezinengaineko Zerga

PSE-EEren ekimenez landu dute gaia, eta PPk ez beste guztiak onartu dute

keta gertatuta, Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak erabilitako ondasun higiezinak ondasun publiko bihurtu daitezela". Eraikin horien erabilera udalek zehaztea eskatu dute. Durangon Guardia Zibilak Montorretan daukan kuartelari eragiten dio mozioak. Bildu eta Aralarren iritziz, ETArekin indarkeria amaituta, dagoeneko ez dago Guardia Zibilaren presentziarako arrazoirik.

Urdaspal Bolinagak (Bildu) honakoa adierazi du: "Durangon ez dago euren konpetentziak betetzeko ezer". Murrizketa legea betetzea da Bilduren eta EAJren iritziz. Gainera, murriztu bitartean "beharrezko ez diren kontrolak" bertan behera uzteko exijitu du udalak. Dani Maeztuk (Aralar) azken boladan kontrol kopuru handia egon dela kritikatu du, "Guardia Zibilaren ohiko jarreragaz". PSE-EEk eta PPk kontra bozkatu dute. Juan Jose Gastañazorreren (PP) dio mozioa onartuta askatasuna eta giza eskubideak babestu dituztenekiko sentsibilitate falta erakutsi dela. ■ M. Onaindia

ematen dien diru-laguntzetan murrizketak egon direla gaitzetsi dute. 2009an EUDELegaz sinatutakoa betetzea exijitu diote jaurlaritzari.

Aralarren ustez, Jaurlaritzaren atzerapausua da. "Mozioa, aurrerapausua izan ez arren, lehengora bueltatzea da". Bilduk gogoratu du euskaltegi pribatuak ere egoera gaitzean daudela. Gainera, kritikatu du udala dela lehengoa Euskara Plana ez betetzen. PSE-EE eta PPren zatitza, Jaurlaritzak egindakoa diru-egokitzapena da, ez murrizketa. ■ M. O.

horregatik 350.000 eurotik gora jaso dituela.

Udal finantziarioa

Udalak egoera ekonomiko gaitzean daudela eta, finantziario bide gehiagorako aukera ematea eskatu diote Aldundiari. Bildu eta Aralarren iniziatibaz eta PSE-EEk babestuta onartu da mozioa. Ohiokoak ez diren eta alokatuak edo lagatakoak ez diren etxebizitzaren zergei lotuta, neurri bat proposatu dute: jabeen %100 eta %150 arteko erretegia ezartzeko aukera edukitzea Ondasun Higiezinengaineko Zergan. Udalkutxaren irizpideak adosteko mahaia sortzea ere eskatu dute. EAJk eta PPk kontra bozkatu dute. ■ M. O.

Erdi Aroko Durango islatu dute miniaturan

XV. mendean Durango urbanistikoki zelakoa zen erakusten duen maketa aurkeztu dute museoan

Erakusketa berribatzabaldut dute Arte eta Historia Museoan. Sei mende atzera eginez, Durango XV. mendean hirigintzan zelakoa zen azaltzen duen maketa ipini dute bertan. Juan Azurmendi durangarrak eta Iñaki Cachorro bilbotarrak ondu

Etxe ugari kale bete eta estuak islatu dituzte maketan. Jendea ere bai kaleetan

dute maketa, Belen Bengoetxea arkeologoaren aholkupean. Lau urteko lanaren emaitza, 1/100 eskalan ikusi ahal da. Bengoetxeak dio hainbat galdera eduki dituztela erantzuteko: "Zer altuera zekuten etxeek eta elizek? Zelakoak ziren leihoak edota arbolak?"

Etxeak egurrezkoak ziren nagusiki. Etxe ugari kale bete eta estuak islatu dituzte maketan. Jendea ere bai. "Jendeak bizitza kalean egiten zuen". Plazak gaur egunekoak baino txikiagoak ziren; Andra Mari eta Santa Ana ziren bilgune



Hainbat herritar eta ordezkari, maketaren inaugurazio egunean, martitzenean.

esanguratsuenak. Kalebarria orduan eraiki zuten, herriari zati handi bat gehituta. Biztanleria nabarmen hazi zela diote. Merkataritzarako gune geografiko garrantzitsua izan zen, eta sozial-

Lariz sendiko bat alkate izan zen, eta bere palazioa eraikitze lanak ikusten dira

ki sasoi distiratsua izan zela dio Bengoetxeak. Lariz sendiko bat izan zen alkate, eta bere palazioa, Lariz Torre, eraikitze lanak ikusten dira. Sei ateko harresiak babes-ten zuen herria. ■ M. Onaindia

Bildu: "EAJk inposaketaren politikagaz jarraitzen du"

Durangoko udal aurrekontua onartu barik eta alderdien arteko ikamikak jarraitzen du. Gobernu taldeak oposizioari bota dio egoeraren errua, EAJ negoziatzen saiatu dela adieraziz. Baina, Bilduk bes-telako iritzia plazaratu du: "EAJ-ren udal gobernuak behin ere ez gaitu deitu aurrekontu hauetaz berba egiteko, nahiz eta Durango-ko bigarren indarra izan. Elkarritz-

Bildu: "EAJk behin ere ez gaitu deitu aurrekontu hauetaz berba egiteko"

keta eta parte-hartzearen aldeko jarreraren aurrean, beraien inposaketa politikarekin jarraitzen dute". Bilduren ustez, "EAJk urteetan jarraitu duen udal ereduak ez duela funtzionatzen frogatuta dago". Beharrezko proiektuak herritarren parte-hartze barik diseinatzeak ez daukala zentzurik adierazi du koalizio ezkertiarrek. ■ M.O.

Biribilgunea errepide erdira lekualdatzeko eskatu dute

Eguaztenean istripu gertatu zen Tabirako bidegurutzean. Auto baten eta kamioi baten arteko kolpea gertatu zen; ez zen zauriturik egon. PSE-EEren ekime-nez, udalaren hirigintza batzordeak biribilgunea errepide erdira lekualdatzea eskatu dio Aldundiari. Biribilguneetik pasatzea derrigorra izatea gura dute. Obrak egin bitartean, abiadura muga murriztea eta bidegurutzea baliogabetzea exijitu dute.

PSE-EEren ustez, eguaztene-ko istripuak argi uzten du oraindik gune arriskutsua dela BI-623 errepideko bidegurutze hori. Bertan istripu asko jazotzen direla-eta, PSE-EEK kritika egin du: "Ez dugu ulertzen Aldundiak besoak gurutzatuta jarraitzea". ■ M.O.

PSE-EE: "Ez dugu ulertzen Aldundiak besoak gurutzatuta jarraitzea"

MALLABIA

Ogiza abadiñarrak irabazi du frontenis txapelketa

25-12 irabazi dio Martinez soraluzearrari

Mallabiko Futbito Taldeak antolatzen duen frontenis txapelketa Gaizka Ogiza abadiñarrak irabazi du. Eguazteneko finalean 25-12 nagusitu zitzaion Jokin Martinezsoraluzearrari. Parte-hartzaileen artean mallabiar asko egon direla jakinarazi dute. Iaz Iñigo Praderak irabazi zuen, baina lesio bat dela-eta ezin izan du jokatu.

Euskararen aldeko futbito maratonia astebururako

Frontenis txapelketaz gainera, Mallabiko Futbito Taldeak euskararen aldeko futbito maratonia eratu du astebururako. Euskararen erabilera oinarri hartuta, jokala-

Asteburu honetarako bikotekako frontenis maratonia antolatu dute. Dagoeneko hogeik bikotek eman dute izena. Gaur arratsaldean hasi eta gaueko 02:00ak arte jokatu dituzte partidak. Zapatuan goizeko 09:00etatik gaurerarte jardungo dute. Domeka goizean eta arratsaldean jokatu dituzte finalaurrekoak eta finalak. ■ J.G.

riak Azkaldeko zelaian elkartuko dira. Hamabost taldek eman dute izena, Carlos Garcia futbilo taldeko arduradunak jakitera eman duenez. Barikuan eta zapatuan liga sistema n jokatu dute. Bariku arratsaldean ekingo diote txapelketari goizaldeko 01:00ak arte. Zapatuan goizeko 09:00etatik goizaldeko 01:00etara lehiatuko dira. Domeka goizean eta arratsaldean erabakiko da zein taldek irabaziko duen. ■ J.G.

Biscaytic proiektuan sartu dute 'mallabia.org'

Mallabiko Udalak webgune berria estreinatu du asteon. Bizkaiko Foru Aldundiaren Biscaytic proiektuaren barruan garatu dute *mallabia.org*. Mila Mondragon alkatearen berbetan, "gure herriaren irudi berrian oinarriturik, plataforma modernoa sortu dugu, intuiziozkoagoa, erabilgarriagoa eta eduki berriekin". Alkatetik gainera, "ekimenaren helburua, gure udalerriaren arlo batzuei buruzko informazioa emateaz gainera, Mallabiaren gaur egungo egoera argi eta azkar eskaintzea da". Webgune berria interaktiboa izatea gura dute, baita gaurkotua ere, informazioa beharren eta herrian gertatzen diren aldaketen arabera aldatuko duena.

Webgunea proiektu handiago baten lehenengo fasea da. Laster herritarrei administrazio izapideak etxetik egiteko aukera ere eskaini gura diete. ■ J.G.



ZALOA FUERTES

ARGAZKILARIA | PHOTOGRAPHER

www.zaloafuertes.com

zaloa.fuertes@gmail.com

☎ 685 70 48 39

ABADIÑO

Asteon baserriko hondakinak batuko dituzte kooperatiban

Ekainaren 18an eta 19an, baserriko hondakinak batuko dituzte Abadiñoko DIBA kooperatiban, gero birziklatzeko. Baserriko ongariak, herbiziden, fungiziden eta parasitoen kontrako txertoen ontzi hutsak, eta xiringak ere batuko dituzte arreta zuzena eskaintzeko ordutegian. Bilketa hori hiru hilabeterik behin egiten dute DIBAn, Urkiola Landa Garapena elkartearen bidez.

Iaz landareen eta animalien zaintzarako produktuen 700 ontzi huts batu zituzten

Urkiola Landa Garapena elkarteak azaldu dutenez, iaz landareen eta animalien osasuna zaintzeko erabiltzen diren produktuen 700 ontzi huts batu zituzten. Artzain elektrikoen pilak ere batzen dituzte bertan, eta berotegiko plastikoen eta belar-siloen bilketa ere egiten dute baserriko baserri. ■ A.U.

El Material Aislante likidatu eta 40 lagun kaleratzeko zorian

Enpresaren zorrak handiegiak direla eta jarduera bertan behera uztea proposatu du zuzendaritzak

Azto batu ziren sindikatuak, El Material Aislante enpresaren zuzendaritza eta konkurtso administratzailea. Batzarrean parte hartu zuten ELA sindikatuaren delegatuak jakinarazi dutenez, enpresaren jardura amaitzea proposatu du zuzendaritzak: "Likidazioa da mahaigaineratu ziguten planteamendua". Beraz, langileen kontratuak ere bertan behera uztea proposatu zen batzarrean. 40 langile dauzka enpresak.

El Material Aislante enpresak zorrari ezin diola aurre egin, eta zor gehiago pilatzen ari dela ondo-

Enpresaren planteamendua aztertuko du ELAk, nondik jo erabakitzeko

riotzatu du konkurtso administratzaileak, sindikatuko delegatuak kontatu duenez.

Epaitegian, gaur

Atzoko batzar horretan aurreratu zuten enpresak sindikatuak ordezkariak erabakia: merkataritza epaitegietan enpresaren likidazio eskaria egingo dutela gaur.

Sindikatuaren ordezkariak azaldu dutenez, enpresaren planteamendua aztertuko dute ELA-ko ekonomialariek, aurrerantzean nondik jo erabakitzeko.

Maiatz amaieran eman zuen enpresaren zuzendaritzaren asmoaren berri ELAk. Orduan ez zeukaten, ordea, ezelako dokumentu ofizialik eskuartean.

El Material Aislante enpresa 1948an sortu zuten. Mota askotako hodiak egin dituzte ordutik Traña-Matienako lantegian. ■ I.E.



El Material Aislante enpresa.

San Antonio Egunaren inguruko argazkiekin erakusketa osatu dute

Domekan, santutegian egongo da ikusgai

San Antonio Egunean gaur egungo argazkiak eta duela mende batekoak alderatuko dituzte. Txelu Angoitia argazkilariak jardun du XX. mende hasierako argazkiak biltzen, eta erakusketa osatu dute: *San Antonioak bi aro, bi begirada*. Besteak beste, Indalecio Ojangueren argazkilariaren antzinako argazkiak egongo dira ikusgai Urkiolako santutegian, domekan.

Txelu Angoitia argazkilariak jardun du XX. mende hasierako argazkiak biltzen

Eguaztenean ospatu zuten aurtengo San Antonio Eguna santutegian, eta hainbat ekitaldiz gozatu ahal izan zuten bertaratu zirenek. Besteak beste, 60 erakusmahaiak nekazal eta ganadu azoka, bertsolarien saioa, eta mezak izan ziren egun osoan zehar.

Jose Luis Navarro alkateak azpimarratu zuenez, "aurten San Antonio Eguna astegunean egokitu da eta hala ere jende asko hurreratu da". Urtero legez, hainbat izan dira Urkiolako harriari buelta eman diotenak, kondairak dioenez, bikotekidea bilatzen laguntzen duelako. ■ I.E.



Urkiolako harriari buelta, eguaztenean. E.M.

Uztailerako amaitu gura dituzte Correoseko lanak

Uda ostean lekualdatuko dute posta bulegoa

Gaur egun Zelaieta auzoan daukan bulegoa Traña-Matienako San Prudentzio kaleko lokalera lekualdatzeko lanetan ari da Correos

enpresa publikoa. Bost hilabete-ko exekuzio epea duten lanak dira, eta arduradunek azaldu dutenez, eraikina atontzeko lanak



Bost hilabete-ko exekuzio epea duten lanak ari dira egiten.

uztailean amaitzea espero dute. Behin lanak amaituta, uda ostean bulegoa Zelaietatik Traña-Matienara lekualdatuko dute.

Arduradunen berbetan, oinezkoentzako nahiz autoentzako irisgarritasun handiagoko 235 metro karratuko lokalak da Correosen Abadiñoko bulego berria hartuko duena. Zelaietako oraingo bulegoko zerbitzuak berak eskainiko dituzte lokal berrian ere: banaketa eta bezeroen arretarako zerbitzua eskainiko dute.

Correosen Bizkaiko arduradunek azaldu dutenaren arabera, "orain arteko zerbitzuak mantentzea", baina "abadiñar gehienentzat eskurago", hori da bulegoa lekuz aldatzearen helburua.

Talde Independenteko Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak, bere taldearen jarrera Zelaietako bulego mantentzearen aldekoa izan dela azpimarratu izan du. Bestalde, Correosen asmoen berri ofizialik ez duela jaso azaldu du Navarro alkateak. ■ I.E.

ZALDIBAR

Bilduk eta ELAk langileen baldintzak hitzartu dituzte

PSE-EE eta PP alde agertu dira, eta EAJ abstenitu

Hitzarmen berri batek arautuko ditu 2012-2013an udal-langileen lan baldintzak. Hitzarmen hori onartzearen alde bozkatu zuten maiatzeko ohiko udalbatzarrean Bilduk, PSE-EEk eta PPK. Abstenitu egin zen EAJ. Bilduko udal gobernuak eta ELA sindikatuak

adosturikoak dira baldintza horiek, eta udal-hitzarmena hartu dute oinarri bezala.

Inkoherentziaz jokatzeko ego-tzi zion Nerea Garitagoitia jeltzaileak Bilduko gobernu taldeari: "Beste erakunde batzuen murrizketak kritikatu baina aldi berean

zuek ere murrizketak aplikatzen ari zarete".

Eskola-eraikin berriak, bihar Bestalde, eskolan egingo duten eraikin berriak hautatzeko burutu duten lehiaketa publikoaren sari banaketa ekitaldia egingo dute, bihar: 12:00etan, udaletxeko areto nagusian da hitzordua.

Arantza Baigorri alkateagaz batera, udal arkitektoak azalduko du adjudikazioaren prozesua, eta proiektu irabazlearen egileek egitasmoaren inguruko azalpenak emango dituzte. ■ I.E.



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

Eusko Labela duten kalitate goreneko elikagaiak Benetakoaz gozatu

Eusko Label produktuaz gozatzea, hain zuzen ere, gure ekoizleek beren lanean jartzen duten arreta balloesten jakitea da, ingurune pribilegiatu parekaezin bat iraunarazten jakitea da, goi mailako kalitate ziurtatua duten produktuak aukeratzen jakitea da... eta benetakoaren zaporeaz gozatzen jakitea da.

Gehiago jakiteak gehiago gozatzea baitakar.



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

www.benetakoazgozatu.com



hazi

Landa eta itsas ingurunearen
garapenerako Eusko
Jaurlaritzaren Korporazioa

Corporación del Gobierno
Vasco para el desarrollo
del medio rural y marino

OTXANDIO

Euskaraz bizitzeko gogoia sustatu gura dute lip dub baten bidez

Gaur, 19:30ean, entsegu orokorra egingo dute Andikona plazan



Euskara sustatzeko ekimenagaz bat egin duten elkarteetako kide eta hainbat norbanako.

Otxandioko Euskaldunon Amaraunek, herriko euskaltzaleen sareak, herrian euskaraz bizitzeko gogoia bultzatzeko kanpaina bat abiatu du. Hasteko, lip dub bat grabatuko dute, herritarren artean mezu hau zabaltzeko: *Euskaraz bizi guredu!* Gaur, 19:30ean egingo dute entsegu orokorra Andikona plazan. Lip duba ekainaren 23ko zapatuan, 12:30ean, grabatuko dute.

Elkarte askok ekimenagaz bat egin dute eta herritarren parte-hartzea ere ahalik handiena izatea gura dute. Lip duba plazan hasi eta amaituko da. Ibilbidean zehar eguneroko bizimoduan aurkitu ahal diren egoerak irudikatuko dute: gurasoen eta seme-alaben arteko hartuemanak, koadrilen artekoak, enpresetakoak... Euskaraz bizi ahal izateko, gogoia edukitzea funtsezkoa dela adierazi

gura dute. Esne Beltzaren *Euskaraz bizi nahi dut* abestiaren erritmora egingo dute lip duba.

Euskaraz bizitzeko ohiturak eta gogoia zabaltzeko etorkizunean egingo dituzten ekintzen abiapuntua da lip duba, mezua plazaratzen hasteko modua. *Euskaraz bizi guredu!* esaldiagaz banderatzakoak eta zapiak atera dituzte eta autoetan ipintzeko pegatinak ere egin gura dituzte. ■ J. Derteano

GARAI

Hondakin bilketa aztergai, parte-hartze foroan

Martitzenean egingo dute batzarra, 19:00etan

Hondakinen bilketa eta edukiontzien berrantolaketa. Gai horien inguruko informazioa emango dute martitzeneko foroan. Gainera, herritarrek ekarpenak egitea ere gura dute antolatzaileek. Udalak eta Amankomunazgoak eratu dute eztabaida saioa.

Arratsaldeko 19:00etan hasiko da, udaletxean. Herritarrei ber-

taratzeko deia egin diete, eta euren parte-hartzea beharrezkoa dela adierazi. Amankomunazgoak edukiontzi berriak erosi ditu herrietan ipintzeko, eta horiek non etazelan ipini aztertuko dute. Gainerako herrietan ere aurreikusi dituzte foroak; guztira hogeita batzar programatu dituzte urte amaiera bitartean. ■ M.O.

ATXONDO

Etxebizitza kooperatibari buruzko batzarra deitu dute

Eguaztenean, 20:00etan batuko dira udaletxean

Batzar irekia deitu du udalak datorren eguaztenerako, 19:00etan, udalbatzar aretoan. Bertan, informazioa emango dute etxebizitza berriak kooperatiba baten bidez eraikitzeko eta kudeatzeko ereduari buruz.

Izan ere, udalak Apatan zortzi etxebizitza egiteko proiektu bat dauka, baina gaur egun ez dago gastu horri aurre egin eta proiektu

tu gauzatzerik. Horregatik, kooperatibaren eredia proposatu dute, Danimarkan oso zabalduta dagoen Andel eredia.

Horrela, udalak lur zatia utzita, kooperatiba arduratuko litzaiteke proiektua egin eta etxebizitzak kudeatzeaz. Udal ordezkariak ez dute argitu etxebizitza berri horietarako lur zatiak zeintzuk diren. ■ J. D.

anbotoko argazki lehiaketa 2013

12 hile herri

oinarriak:

www.anboto.org-n





DURANGALDEA

25. urteurrena ospatu du Durangaldeko Lanbide Ikastetxeak

Ilusioa eta aukerak sortzen eta trebakuntza eskaintzen jarraitzeko asmoa azpimarratu zuten

Durangaldeko Lanbide Ikastetxearen 25. urteurrena ospatu zuten, atzo, Durangon bertan dituzten azpiegiturretan egindako ekitaldian. Mende laurdeneko ibilbidea gogoratu eta etorkizunean ilusioak eta aukerak sortzen eta prestaketa eskaintzen jarraitzeko asmoa azpimarratu zuen gaur egungo Amankomunazgoko presidente Oskar Zarra-beitiak.

Hainbat udaletxetako eta ikastetxetako ordezkariak gainera, Amankomunazgoko presidente ohi batzuk eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailean ikasketa iraunkorreko zuzendari Jose Luis Elorza ere batu ziren ekitaldira. Urteurrena ospatzeko bideo bat landu dute irakasle, ikasle eta zuzendari ohiekin eta atzoko ekitaldian erakutsi zuten lehenengoz. Ostean, ikastetxeko azpiegiturak



Ikastetxeetako, udaletako eta Amankomunazgoko ordezkariak, lanbide ikastetxean, atzo.

bisitatu zituzten: teoria klaseetarako eraikina eta praktiketarako erabiltzen dutena. Lanbide Ikastetxeko zuzendari Augusto Uriartek urte hauetan

Urteurrena ospatzeko bideo bat landu dute eta ekitaldian erakutsi zuten lehenengoz

guztietan emandako garapena eta aurrerapausuak azaldu zituen eta herritarren artean konfiantza lortzeko egindako ahalegina azpimarratu zuen. ■ J. Derteano

Adimen Urritasunaren Eguna antolatu dute etzirako Abadiñon

Kirol munduagaz duten hartuemanaren erakustea da aurtengo helburua

Durangaldeko Adimen Urritasunaren Eguna antolatu dute domekarako Geu Be elkarteak eta Abadiño-ko Udalak, Traña-Matienako auzoan. Aurtun, adimen urritasuna duten kirol munduagaz duten hartuemanaren zelakoa den azaltzen saiatuko dira hainbat ekitaldiren bidez. Goizeko 10:00etan futbol partiduak jokatu dituzte Traña-Matienako kiroldegian. Besteak beste, adimen urritasuna dutenekin lanean dabiltzan Arabako eta Gipuzkoako elkarte banak parte hartuko dute. Ostean, futbol kan-

txa alboan dagoen pilotalekura joango dira eta, 13:00etatik aurrera, pilota partiduak jokatu dituzte. Sari banaketarekin hasi aurre-

Goizeko 10:00etan futbol partiduak jokatu dituzte Traña-Matienako kiroldegian

Abadiñoko Sokatira Taldeak erakustaldia eskainiko du bertaraten direnentzako

tik, Abadiñoko sokatira taldeak erakustaldia eskainiko du bertaraten direnentzako. **Diskoteka kiosko plazan** Arratsaldean, ospakizun giroa emango diote egunari eta kalera aterako dituzte ekitaldiak. Horrela, 16:00etan, diskoteka musika dantzagarria ipiniko dute kiosko plazan eta batukada saioak ere egongo dira. Ostean, 17:30ean, umeentzako jolasak prestatuko dituzte plazan bertan. Egunari amaiera eman aurretik, txokolatada ere egingo dute. ■ J. D.

ELORRIO

Kontsumoan zentratu barik, hartuemanetan sakondu

Herritarren Truke Azoka egin zuten domekan



Produktuak trukatzeko, joan zen domekako azokan.

Jostailuak, liburuak, apaingarriak, arropa, dantzarien jantziak, aldizkariak... Denetariko jeneroa eskaini zuten elorriarrek antolatutako lehenengo Truke Azokan. Elkarte, familia, ume eta norbanakoak plazan elkartzeko zuten domeka goizean. "Zenbat balio du honek?" "Ez, dirurik ez dugu hartzen, zer edo zergatik aldatuko dizugu". Elkarri zer aldatu jardun zuten hartuemanetan. Postuetan kuxkuxeatu, eta mota guztietako aldaketak egin zituzten. Hainbatek, aldatzeko ezer barik irteten eta etxera egin zuen buelta, trukatzeko zerbaiten bila. Beste batzuek, objekturik ekarri ez eta besarkada eta musu truk egin zituzten aldaketak. Intxorta Asti elkarteak, Betsaide dantza taldeak, Kainabera lan-kidetarako elkarteak eta Elorrixa ekologia elkarteak egin zuten azokarako deialdia. Antolatzaileek adierazi dutenez, honakoa izan zen truke azokaren helburua: "Kontsumoan zentratu barik herritarren arteko hartuemanetan sakontzea". ■ A.U.

BERRIZ

Promozio publikoko hiru etxebizitza salmentara

Margarita Maturanako etxebizitza tasatuen pleguak udal webgunean publikatu dituzte

Margarita Maturana etorbidean eskuratutako etxebizitza tasatuetatik hiru salgai ipintzea erabaki du udalak. Herrian etxebizitza eskaera zenbatekoa den jakin gura dutela azaldu du alkateak.

Herrian etxebizitza eskaera zenbatekoa den jakin gura dutela azaldu du alkateak

Berriz SUSA Hirigintza Sozietatearen bidez egingo da salmentak. 2002an eraikitako promozio publikoko etxeak dira Margarita Maturanakoak, eta orduko prezioari urteotako KPI eta %1 gehituko zaiola esan du Orlan Isoird

ahaztu eta elkarrekin lan egitea da, irabazle eta galtzaile barik". Alberto Albaina Durango Bai ordezkariak argitu du helburua: "Kolektibo indartsuago eta batua goa lortu gura dugu; Durangalde osoko zerbitzu sektoreari on egin-gio diogula uste dugu". **Kide gehiago lortu guran** Hitzarmenagaz, besteak beste, bazkideen kuotak merketuko dituzte, bazkide gehiago lortu ahal izateko. +Dendak elkartearen egitura mantenduko dute marka berridun elkartearentzat. ■ A.U.

Dendak Bai osatu dute +Dendak eta Durango Baik

Merkatarien elkarteak bat eginda, zer gura duten argi dute: "Kolektibo indartsuago eta batuagoa"

Durango eta inguruko herrietako bi merkatariek elkarteak batu dituzte asteon, Dendak Bai izenpean. +Dendak eta Durango Bai elkarteetako kideek adierazi dutenez, hainbat hilabetez egindako negoziazioaren ostean sinatu dute bat egitea. Elkarte berriaren sorreran aipatu dutenez, Durangoko Merkataritzaren Biziberritze Planean batutako beharriari erantzuten die bi elkarten bat egitea. Guillermo Oarbeaskoa +Dendak elkartearen presidentearen berbetan, "garrantzitsua iragana

Durangaldean labor

Bateragune auziari
kontra mozio bidez

Berrizko osoko bilkuran Batera-gune auziaren kontrako mozioa onartu dute asteon. Bilduk aurkeztu du testua, auziagatik kartzelaratutakoak askatzeko eskatuaz. EAJko zinegotziak abstenitu egin dira, eta PSE-EEK kontra bozkatu du.

'Kalezinie' antolatu
du Zapaburuk

Datozen eguenetarako zinezikloa antolatu du Zapaburu Konpartsak. Santa Ana plazan proiektatuko dituzte filmeak. Ekainaren 21ean, *Los edukadores* eskainiko dute; ekainaren 28an, *Comprár, tirar, comprar* dokumentala; eta uztailaren 5ean, *La Ola* filma.

Intxaurre Egunaren
bigarren aldia bihar

Bihar eguerdian hasiko dute Intxaurre Egunaren bigarren edizioa, herri probekin. Ardo dastaketa, herri bazkaria eta musika edukiko dituzte Intxaurre kanpoan eta han atondutako karpan. Iaz 25 urte bete zituen elkarteak, eta urtero jaia egitea erabaki dute.

Galiziako jakiak
dastagai Landakon

Asteburuhonetan 1. Galiziar Gastronomia Azoka egongo da Durangon, Landako Gunean. Galiziako ohiko jakiak prestatuko dituzte, eta artisau erakusketa eta produktu galiziarren denda ere egongo dira. Zapatu gauerdian *queimada* edari tradizionala prestatuko dute.

Konkrealusitivity
sariketa amaitu da

Asier Agirrek irabazi du Maristak Konkrealusitivity sariketa. Ariketen bidez, konfiantza eta kreatibitatea bultzatzea izan dute helburu lehiaketan. Zornotzako Karmengo Amako ikasleak tablet bat lortu du. Durangaldeko beste hainbat ikaslek parte hartu dute.

IURRETA

Goiuriako ibarbideen auzian
jarraitu ahal izango du alkateak

Auzokoek inpartziala dela salatu zuten arren, ez diete baztertze-eskaera onartu

Lukupeko Troka eta Luku-Txiki ibarbideak lurrez betetze-ko obren lizentzia espedientean, erabaki ahalmena izaten jarraituko du Iñaki Totorikaguen alkateak. Goiuriako kofradiak alkatea gai horretan partziala dela salatu eta errefusatzeko intzidentzia aurkeztu zuen udalean. EAJk, PSE-EEK eta PPk, ordea, uste dute ez dela hori frogatu, eta ez dute onartu aurkeztutako errefusatzeko intzidentzia, alkatea baztertzeko eskatzen zuena: "Froga-bideek

legezkotasun, objektibotasun eta jarduteko independentziaren presuntzioa ez dute aldaratzen".

Auzokoek iazko azaroan hasitako prozedimendua amaitu da, honenbestez, eta ibarbideak lurrez betetzeko jarduerarako lizentzia

Bildu kontra agertu da. Gaia "beharrezko sakontasunagaz" ez dela aztertu diote.

eman ahalko dute. Bildu kontra agertu da. Gaia "beharrezko sakontasunagaz" ez dela aztertu diote, eta froga-bide gehienak baztertu direla kritikatu.

EAJk, ordea, "eskubideaz abusatatu" dela esan du, sei hilabeteko "bidegabekeria" gaitzetsiz. PPk "alderdikeria" eta auzokoen jarrera "tamalgarria" salatu du, eta, PSE-EEK dio "espedientean gai batzuk zalantza zkoak diren arren", ez dagoela alkatea prozeduratik kentzeko froga nahikorik. ■ A. B.

MAÑARIA

Bi urtetik gorakoentzako
udalekuak eratu dituzte

Ekainaren 25ean hasi eta uztailaren 20an amaituko dituzte aurtengo udalekuak

Mañariko Udalak bi urtetik gorako haurrentzako udalekuak antolatu ditu, eta ekainaren 25ean hasiko direla iragarri dute. Goizeko 09:00etatik 13:00etara eskainiko dute zerbitzua, astelehenetik barikura bitartean. Gaurkoa da

09:00etatik 13:00etara eskainiko dute zerbitzua, astelehenetik barikura

izena emateko azken eguna. Liburute girira joan behar da horretarako. Astebete, bi, hiru edo lau asterako apuntatu ahal da. Uztailaren 20an amaituko dituzte aurtengo udalekuak.

Azoka, U2 tabernan

Bestalde, bigarren eskuko azoka eratu dute U2 tabernan, biharko. Arropak eta bitxiak ipiniko dituzte salgai arratsalde partean, antolatzaileek azaldu dutenez. ■ M. O.

Fatima Frailek
hartu du
institutuak
emandako saria

Lantokiko Prestakuntza amaitutako ikasleei diploma emateko ekitaldiaren baitan, Iurreta Institutuaren Saria eman diote External Global Services S.A. enpresari. Enpresaren zerbitzuen zuzendari Fatima Fraile durangarrak jaso du saria, hartu-eman "erraz" eta "adeitsua" aitortu gura duena.

65 ikasle, 43 enpresatan

Ikasturte honetan, 65 ikaslek jardun dute Lantokiko Prestakuntza egiten, eta 43 enpresatan egin dituzte praktikak. Atzerrian aritu dira bederatzi ikasle, Polonian eta Ingalaterran, hain zuzen ere. ■ A. B.



Fraile, saria joasotzen, External Global Servicesen izenean. A. B.

IZURTZA

Santa Ageda ermitarako
bidea asfaltatu dute

Udalak 10.000 euro erabili ditu lanetan eta Basogintza saileko diru-laguntza jaso dute

San Ageda ermitarako bide zati bat asfaltatu dute. Orain arte 250 bat metroko bide zati horretan hartxintxarra zegoen eta autoentzako gatxa zen handik pasatzea. Horregatik, Basogintza sailaren diru-laguntza bat aprobetxatuz, udalak 10.000 euro bideratu ditu lan horietara. Ermita hori ezaguna da, urtero, irailean, jaietako lehen domekan jaialdia antolatzen dutelako bertan.

Gainera, pilotalekuaren atzealdeko aparkalekua alderik

alde gurutzatzen duten bi irtengune ipini dituzte lurrean. Izan ere, sarritan jendea autoekin bertara joaten zen derrapatzeak egitera; aparkaleku osoan ikusten dira pneumatiko arrastoak. Irtengune bi horiekin horrelako praktikak eragotzi gura dituzte. ■ J. D.

Pilotalekuaren atzealdeko aparkalekuan, bi irtengune ipini dituzte lurrean

(A2) KOMUNIKAZIOA

DISEINU GRAFIKOA
ETA WEB DISEINUA

LOGOTIPOAK KATALOGOAK EGUTEGIAK FLYER
STAND GONBIDAPENAK ROLLUP KAMISETAK
KARTELAK ALDIZKARIAK ONLINE DENDAK
ENPRESAREN WEBGUNE INFORMAZIO BLOGAK
AZOKA ERAKUSKETEN DISEINUA

DEITU KONPROMISO BARIKIII

(i) Tel.: 681 305 831 azkomunikazioa@gmail.com

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com

Arrike
Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

gremioen koordinazioa

urutiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

Hemen agertu gura baduzu
deitu!

94 621 79 02

AMETS HANDIAK

prezio txikiak

Utzi hegan egiten zure
irudimenari eta zure
ametsek joan nahi duzun
lekura eramán zaitzatela

Azken ordua

**Kostak
%8_{eko}
deskontua**

Ekainaren
17ra arte

**Irlak
%10 eko
deskontua**

Ekainaren
17ra arte

Karibe
%10 eko
deskontua

Ekainaren
17ra arte

Costa del Sol Benalmádena 190€

Uztaila, 8 egun - 7 gau. Summa hotel Los Pintores***.
Mantenu erdia. **1. haurra doan, 2.ak %50eko deskontua.**
Erreserbak ekainaren 17ra arte. Azken prezioa.
Deskontua dagoeneko.

Ibiza **460€**

Uztaila, 8 egun - 7 gau. Hegazkina. Sol Pinet Playa hotela***.
Gosariak barne. HEGAZKIN TASAK BARNE. Erreserbak
ekainaren 17ra arte. Azken prezioa. Deskontua dagoeneko.

Karibe Riviera Maya **875€**

Uztaila, 9 egun - 7 gau. Hegazkina. Riu Lupita hotela****. Dena barne. HEGAZKIN TASAK BARNE. Erreserbak ekainaren 17ra arte. Azken prezioa. Deskontua dagoeneko.

Afrika "Konfort-kamioitik" begiratuta **2.670€**

Abuztuaren 14ean, 16 egun - 13 gau. Hegazkina.
Programaren arabera hotelak eta erregimena.
**HEGAZKIN TASAK BARNE. 300 puntuko Kaleidoskopio
esperientzia-kaxa opari (erreserba bakoitzeko).**
Erreserbak ekainaren 15era arte.



Ametsetan? Egizu hegan!



www.viajeros.es



BERBAZ >

“Umoretsu ikusten dugu; indarra duen artean, guk aurrera jarraituko dugu”

Gaixotasun larridun semeagatik laguntzak eskatzean burokraziagaz eta Mutuaren ezetzagaz egin dute topo



Mila Basterretxea, Jose Jurado eta Urtzi semea •

■ Berriztarak dira

■ Milak 24 urte ditu, Josek 28 eta Urtzik bederatzi hilabete. Lau urteko semea ere badute.

“Mediku historia ezin da ospitaletik atera; ba lortu dugu”

dugu LABen bitartez, eta begiratzeko gabilta noraino aldatu behar garen. Mutuakoari esana diot, izen-abizenak eta datuak emateko, Lakuara joan behar banaiz, joango naiz, eta Madrile-ra joan behar banaiz, ere bai. Lekuren baten entzungo didate.

M.B.: Orain hasi gara animatzen, Berrizko Udalak azkenean laguntza bat emango digula esan digulako.

J.J.: Buelta asko egin ditut udal txera. Aurtan astero joan naiz, eta laguntzetarako zer funts duten jakin nuenean, egunero hasi nintzen joaten. Hasieran paper asko eskatu zizkidaten. Azkenean etxeko gastuen mantenturako eta hipotekarako laguntza bat emango digute. Gero diputazioarengandik paper guztiak lortu ditugu, burokratiko behar dugun guztirako han daudela esan digute, eta ondo. Milak elbarritasunaren pentsioa dauka. Horrekin eta nire nominagaz, korbata estutu behar.

Elkartasuna jaso duzue?

M.B.: Lagunek asko lagundu digute. Gurutzetan ere jendea ezagutu dugu, eta bertan lo egiteko etxea ere eskaini digute. Abantaila hori da: hainbeste aldiz egon ingesatuta, eta azkenean oso jende ona ezagutu dugu.

J.J.: Urtzi umoretsu ikusten dugu. Asko jaten du, eta hori oso ona da; esan digute umeak horrelako gaixotasunekin zundagaz egoten direla. Berak indarra daukan artean, guk aurrera egingo dugu. ■ A.Ugalde

Bederetzi hilabete dauzka Urtzi Jurado Basterretxeak. Bihotzeko gaitz bat eta hainbat organori eragiten dion gaitz genetiko bat ditu. Ospitale-ra joan-etorriak egiteko lanordua murriztu eta Mutuari laguntzak eskatzeko bidea hartu du bere aitak. Burokraziagaz luze borrokatu eta gero, ezetza jaso du.

Noiz hasi zineten laguntza jasotzeko beharrekin?

Mila Basterretxea: Guk bagenekien Urtzi bihotzeko arazoagaz zeterrela, haurdunaldian esan ziguten, baina jaio eta gero beste arazo batzuk ere etorri zaizkio; gibelari eragiten dion gaitz genetiko bat dauka, zain txikiak dauzka...

Jose Jurado: Kardiologoak esan zigun Gizarte Segurantzaren bazeudela laguntzak. Bertan ea biok lanean genbiltzan galdetu ziguten, eta ez. Ba orduan ez geneukala zereginik. Milak elbarritasuna daukanez [arantza zatibitua dauka, bizkarrezurreko gaitz bat] zeozer egin ahal zela esan ziguten, eta nire enpresaren mutualitatara joan behar ginela paperak egitera.

“Buelta asko egin ditugu udaletxera; azkenean etxeko gastuen mantenturako eta hipotekarako laguntza emango digute”

Eta lan burokratikoak hasi zen...

J.J.: Dena zen ‘Bai, bai...’, paper hori aurkeztu baduzu baietza izango duzu. Laguntza jasotzeko derrigorrezkoa da ni lanaldi murriztuan egotea, gutxienez %50ean. Apirilaren amaieran hartu nuen murrizketa. Paperen bila hasi, Berrizko Udalari laguntzak eskatu, Bilbora joan, Gurutzetatik atera ezin ziren paperak ere atera dizkigute...

Atera ezin zirenak?

J.J.: Urtziren mediku historia behar nuela esan zidaten, eta kontsultetako informak bai, baina mediku historia ezin da ospitaletik atera; ba lortu dugu. Aldundian Milaren eta umearen elbarritasunaren balorazioa eskatu genuen, eta mutualitatean eskura eman genizkien. Paper guztiak aurkeztuta Gorenara joatea falta zen bakarrik. Handik bi egunera paper gehiago behar genuela esan ziguten. Gurutzetan esan ziguten hori ez zela mediku kontua, burokrazia

baizik; sindikatu batera edo aholkulari juridiko batengana joateko aholkatu digute.

M.B.: Elbarritasunaren balorazioa egin zidan medikuahaserrezegoen, “ez dakite zer den arantza zatibitua? Ba orduan ez dira medikuak”. Degenaratiboa da, eta urte batzuk barru ibiltzeko zailtasunak izango ditut. Medikuak txostena egin zidan esanez bizkarreko minekin ibiltzen naizela, ezin dudala pisurik hartu, hanketako sentsibilitatea galtzen nabilela... Hirugarren pertsona bat behar nuela umeak zaintzeko, eta hor ezetza. Ezgaitasun totala ez badut, Mutuak ez du laguntza ematen.

Ezgaitasunarena izan da orduan ezetza arrazoietako bat.

J.J.: Mutuakoak esan zidan frogatu behar genuela Mila ez zela gai semeak zaintzeko, eta hori ezgaitasun totala izango litzateke. Ezgaitasuna ematen diozun momentuan umea kentzeko arriskua daukagu, karneta ken-

tzekoa, aldiro-aldiro tribunal batetik pasatu beharko litzateke... Baldintza hori eduki beharko genuke, edo Mila lanean egotea, eta orduan baja bat hartzea... Hori hasieratik baldin bazekiten, hasieran esan behar ziguten.

Zer beste arrazoi eman dizkizute?

J.J.: Esaten zuten Urtzik bere adineko ume batek behar dituen zainketak behar dituela. Baina guk ezin dugu jakin noiz eman edukiko duen hipoxia bat, noiz egongo den itolarriagaz, edo gibelak noiz egingo dion eztanda.

M.B.: Gibela transplantatu beharko diote bihotzeko arazoa konpondu eta gero. Giltzurrunetan kiste batzuk dauzka. Begira umea zelan dagoen, eta berataz arduratzeaz gainera, paperak egiten gabilta, zorutzen!

J.J.: Azken arrazoiak nire laneko murrizketarena zen, ez nengoela legalki murrizketan. Enpresak ez zuen murrizketa aktibatu. Enpresa informatzeko Mutuak berak paper bat eman behar zigun bere garaian.

Zer bide hartuko duzue mutualitateagaz?

J.J.: Erreklamazio bat aurkeztu

@anbotokultura

KULTURA[>]LITERATURA[>]

Zer da egunean Elorrioko Portalekuan eskainiko duzuen?

Bortxa Urberuaga: *Ataramiñe* bildumako presoen materiala kaleratzea da helburua. Poema batzuk aukeratu ditugu, eta formatu berrian eskainiko ditugu. Margoak eta musika ere hartuko ditugu, ez gara literaturara mugatuko.

Aurretik beste leku batzuetan ere aurkeztu duzue ikuskizuna?

B.U.: Bai. Santurtziko La Kelo gasetxean egin genuen lehenengoz. *Ataramiñe* liburuaren aurkezpena egin genuen han. Gero, Herri-plateformak deitu zuen *Kartzelak hustu plaza* beteekimenaren barruan, Durangon egin genuen maiatzean, eta Larrabetzuko Literaturian ere eskaini dugu.

“Lehenengo olerkia, esaterako, Eñaut Aiartzaguena iurretarrarena da”

Zer esan dizute entzuleek?

Oier Gonzalez: Hunkigarria dela, askok.

Zeren arabera egin duzue testuen eta margoen hautaketa?

B.U.: Margoak olerkiaren arabera egiten ditut. Olerkiak kontatzen duena marrazki bidez adierazten saiatzen naiz. Musikaren konpasean ere sartu gura izaten ditut margoak. Naturaltasuna ez galtzen saiatzen gara emanaldietan. **O.G.:** Errezitatzen denaren, musikak adierazten duenaren eta margolanaren arteko elkarrizketa bat bezalakoa da ikuskizuna. Badago entsaiatutako zati bat, baina elkarri begiratu eta bestearen erritmoak kontuan hartuta moldatu-

“Kartzelan bizi den errealitatearen gordintasuna helarazi gura dugu”

Bortxa Urberuaga eta Oier Gonzalezek proiektu bat abiatu dute, kartzelako sorkuntzak kaleratzeko helburuagaz; Elorrioko Portalekuan, ekainaren 21ean, errezitaldi bat eskainiko dute, musikak eta margolanek lagunduta



riko beste parte bat ere badago. *Ataramiñe* bildumatik oso hautaketa subjektiboa egin dugu. Lehenengo olerkia, esaterako, Eñaut Aiartzaguena iurretarrarena da.

Oier Gonzalezek ere idazten du. Zergatik besteena errezitatu?

O.G.: Momentu honetan ikusten dut besteen hitzek nirek baino garrantzia handiagoa dutela. Kar-

“Kartzelako kideen lanak kaleratzeko beste era bat bezala ulertzen ditugu emanaldi hauek”

tzelako kideen lanak kaleratzeko beste era bat bezala ulertzen ditugu emanaldi hauek, bitartekariak baino ez gara gu. Kartzela sozializatzeko manera bat da.

Zelan sortu zen proiektua?

O.G.: Bortxa eta biok aspalditikezagutzen dugu elkar, eta kartzelan ere elkarrekin egon ginen. Sorkuntza lan batzuk egin genituen

biok kartzelan. Kartzela barruko gure egunerokoa eramangarriagoa egiteko modua izan da sorkuntza. Sorkuntzaren bitartez kartzelako gauzak kanpora ekartzea da ekimen honegaz bilatzen duguna.

B.U.: Espetxeke errealitatea azaleratzeko dauden mugak apurtzen ere saiatzen gara. Jendea barruan bizi den errealitateaz jabetu dadin gura dugu lortu. Kartzelan bizi den errealitatearen gordintasuna beste era batean adierazi gura dugu ikuskizun honegaz.

Deserosoa egin daitekeen lekuetara ere, ikuskizuna zabaldu gura dute



Lau partaidek jardungo dute Elorrioko Portaleku tabernako ekainaren 21eko emanaldian: Oier Gonzalez durangarragaz eta Bortxa Urberuaga gernikarragaz batera, beste bi gernikarrek jardungo dute txalapartagaz eta gitarragaz. Azaldu dutenez, “aurrera begira eboluzionatuko duen proiektua izango da, baina, irekia”.

“Aurrera begira eboluzionatuko duen proiektua izango da”

Kartzelatik ateratzerakoan, proiektu hau harremana berreskuratze modua izan dela azaldu digu Oier Gonzalezek. Urberuagaren berbetan, “espetxean bizi izan duzuna kanpoan konpartitu ahal izatea kristona da”. Partekatze hori gizarte osora hedatu gura dute.

Zabaltzeko asmoa

Kartzelaren errealitateari loturiko sorkuntzan oinarrituriko ikuskizun hau “gaiarekiko sentsibilitatea daukan jende artean eskaini izan dugu orainarte”, Urburuagak dioenez.

Baina emanaldia ahal beste zabaldu gura dutela diote bi kideek: “Ikuskizuna deserosoa izan daitekeen lekuetara ere ailegatzeko saiatzea gura dugu; esate baterako, emanaldia edozein egunetan kalean bertan eskaintzeko ideia darabilgu buruan”.

Preso zaudenean bezala idazten da kalean zaudela?

O.G.: Ez, kartzelan askoz gehiago idatzi nuen. Komunikatzeko daukazun era bakarra da idaztea han. Kartzelan zer zegoen kanporatzeko idazten nuen. Konturatu nintzen kartzela zer den presoak bakarrik dakiela. Sorkuntza hortik bideratu nuen, kronikaren bidetik.

B.U.: Kartzelako bakardadeak barruan sortzen dizun barruko korapiloa apur bat askatzen laguntzen du sorkuntzak.

Noiztik margotzen duzu, Bortxa?

B.U.: Txikitatik margotu izan dut, eta nire ogibidea da. Gaia tatuaje estudioan dihardut Gernikan.

Zeozor gehitu nahi?

O.G.: Maitasun besarkada bat bidali nahi genieke kartzelako lagun guztiei. ■ I. Esteban

KALE ANTZERKIA >

Antzerkia eta bestelako kultur adierazpenak, kalean gozatzeko

Asteburu honetan ospatuko dute Kalez Kale antzerki jaialdia Iurretan, eta asteon aurkeztu dituzte Uda Klean Bizi egitarauko emanaldiak ere; Durangon izango dira, bi hileotan

Antzerkia kalean, doan eta uda giroan ikusteko aukera bi aurkeztu dituzte Durangaldean asteon. Batetik, asteburu honetan Iurretan egingo duten Kalez Kale antzerki jaialdia. Eta bestetik, uztaiera arte

Durangon burutuko duten Uda Klean Bizi egitaraua.

Iurretan, seigarren urtea da kale antzerkiaren inguruko jaialdia antolatzen dutena. Aurten, Euskal Herriko konpainiek sorturiko bost obra ekarriko dituzte

herriko hiru plazatarata: Amilburu, Dantzari eta San Migelera.

Durangon, kulturaren askotariko adierazpideen emanaldiak izango dira gozagai San Agustin kulturgunetik kanpo, herriko hainbat gunetan. ■ I.E.

Uda Klean Bizi egitaraua: zortzi ikuskizun aukeran ekainerako eta uztaierako

Durangaldeko sortzaileen hiru lan ekarriko ditu San Agustin kulturgunek osaturiko udarako programazioak

Uda Klean Bizi jaialdiaren hamahirugarren edizioa da aurten goa eta zortzi ikuskizun dakartza. Denak, "publiko zabalarik, kalean eta doan eskainita-

koak". Durangaldekoak hiru izango dira. Batetik, Hortzmuga taldearen *Libertia* obrak zabalduko du jaialdia. Durangoko Joana Ocaña aktoreak parte har-

tzen du, eta umeei zuzenduta dago. Bestetik, Ander Ertzilla eta Iñaki Jaioren Lau On Suite taldeak jazz kontzertua joko du. Hirugarrenik, Durangoko La Papa antzerki taldekoek *Tecuento las milyuna...* eskainiko dute: ipuin kontaketa saioa.

Durangaldeko sortzaileen lanez gainera, beste bost ikuskizun egongo dira. *El show de Dodo* kabareterako musika emanaldia, dantza garaikideko ikuskizun bi, edota Vaivén taldearen zirku ikuskizuna ikusi ahalko dute herritarrek kalean.



Jon Kepa Garro eta Arantza Arrazola, aurkezpenean.

Ekainak 24, *Libertia*
Ekainak 27, *Lau-On Suite*
Uztailak 1, *Carneros*
eta *Asi y restar*
Uztailak 6, *El show de Dodo*
Uztailak 12, *Te cuento las mil y una...*
Uztailak 13, Orsai
Uztailak 21, *Nazioarteko Folklore jaialdia*
Uztailak 29, *Do not disturb, no molestar*

Markeliñeren ume zein helduentzako 'Zoozoom' Iurretan estreinatuko dute

Zornotzako antzerki taldearen obra berria eta beste bost kale antzezlan bildu dituzte VI. Kalez Kale jaialdian

Salitre taldeak eta Xabi Larreak estreinatu berri dituzten *Amor ciego* eta *Up!* izango dira, esaterako, Iurretako Kalez Kale antzerki jaialdian. Gainera, Zornotza-

ko Markeliñe taldeak ume zein helduentzako sortu duen lehenengo obra, *Zoozoom*, zapatuan estreinatuko dute, Iurretako San Migel plazan.

Azaldu dutenez, publikoaren parte hartzea da lan berri horren ardatza: 40 ume inguru eta 6 helduren lankidetzagaz osatuko dute antzezlanak.

2007an antolatu zuten lehenengo biderrez jaialdi hau, helburu honez: "Iurretan Euskal Herriko antzerki taldeentzako plataforma eta kale antzerkian erreferente bilakatzea". Aurten go egitaraua 12.000 euroko aurrekontuagaz antolatu dute.

Alkateak, Markeliñeko Joserra Martinezek eta Cesar Arro yok aurkeztu dute jaialdia. ■ I.E.



Alkatea, Markeliñeko kidea eta jaialdiaren koordinatzailea.

Ekainak 15 (gaur),
Zirika zirkus, 18:00etan,
Amilburu plazan
Amor ciego, 20:30ean,
Dantzari plazan

Ekainak 16 (bihar),
Up!, 18:00etan, Amilburun
Zoozoom, 20:30ean,
San Migel plazan

Ekainak 17 (etzi),
Asier Kidam, 13:00etan,
Dantzari plazan

GEURE DURANGALDEA

Libe Mimenza
Kazetaria



LINGUA NABAJORUM

Aspaldian autobusean nabil hara hona eta bidelagunen hainbat elkarrizketa entzuten ditut. Gehienetan ez nau kontatzen dutenak harritzen, hizkuntzak baizik.

Borroka ugari bizitakoa da gure euskara, baina zauriak or bain bihurtzen ikasi dugu. Hala ere, ostikoka darraigu. Erabiltzen ez dugun aldiro odolustera kondenatuz.

Ezagutza ez da arrazoi. Gaur egungo umeek, ikasgeletan euskaraz ikasten dute mundua deitzen den honetan bizirauteko beharrezko dugun eromena. Baina ikasi beharra ez dute atsegin eta euskara behar horren parte da. Aisia ere erdaraz bustia daukagu inguruan, hezetasunak jota gaude. Dakigunok ez darabilgu.

Urteetan besteengan euskara kutsatzeko diskurtso asko eraiki ditugu. Besteak euskaraz aritzeko jarrera asko probatu ditugu, baina batek ere ez du funtzionatu. Tolerante papera ez da duina eta interpelazioa, berriz, nekeza. Probatuko al dugu inposaketa?

Borroka daukagu euskaldunok genetikan. Historian zeharreko lubakietan garatu da euskara, guda bakoitzean eraldatu da gure hizkuntza. Borroka horien ondorioz sortu eta garatu denak bere bidea egiten jarraituko du, euskaldunok era batera edo bestera, elkarren aurka borrokatzen jarraituko dugulako; ez da espekulazioa, genetika kontua da. Teoria horretatik abiatuta osatu dute asteon estreinatu duten *Lingua Nabajorum* antzezlanak. Ez Dok Hiru antzerki taldeko Patxo Telleria eta Mikel Martinezek, euskara eta Euskal Herriko historiari buruzko interpretazio txoro bat taularatu dute.

Eta nik ere burutazio txoro bat izan dut gaur autobusa geltokira iristean: ez dut berriz 'euskaraz bizi nahi dut' errepikatuko; euskaraz biziko naiz eta punto. Bidean, umorea aukeratu dute bidaide, ez dakienak eta ulertzen ez nauenak negar egin nahi badu... Hor konpon! Barre egiteko garaia da hau!

LITERATURA >

Ekhiñe Egiguren izan da Julene Azpeitia literatur lehiako irabazlea

Julene Azpeitia lehiaketaren sariak banatu zituzten Durangon, domekan, San Agustin kulturguneko ekitaldian. Ekhiñe Egigurenek jaso zuen ipuinen saileko 600 euroko sari nagusia, 18 urtetik gorakoena sailekoa. *Agatari gutunak* izeneko lanagaz. Garazi Mugarza mallabiarra ere saritu du epaimahaiak: *Egunak agortu zaizkidan*, 17 eta 18 urtekoen atalean.

Garazi Mugarza
mallabiarra ere saritu
du epaimahaiak

Hiru sailetan, Lehen Hezikuntzako 5. eta 6. mailetak, Derrigorrezko Bigarren Hezikuntzako zein Batxilergoko ikasleek parte hartu dute lehiaketan. Durangoko Udala 1983an hasi zen gazteen literatur lehiaketa antolatzen. ■ I.E.

Durangon 1983an hasi
ziren literatur gazteen
lehiaketa antolatzen

MUSIKA >

Tabira Musika Bandaren kontzertua, Euskal Astean

Euskal Asteako egitarauaren barruan, Tabira Musika Bandaren kontzertua antolatu dute. Bihar, 19:00etan, kalejiragaz hasiko dira Durangoko Bandako Musikariak, eta Elgoibarko dultzaineroen eta Bergarako erraldioen konpartsak lagunduta jardungo dute. Hiru erraldoi bikote ekarriko dituzte bergarrek Durangora, eta dantzan ariko dira kalerik kale.

Kalejiraren ostean, Durangoko Andra Mariko elizpean eskainiko dute kontzertua. Juan Manuel Saez Etxabek jardungo du emanaldi horretan bandaren zuzendaritza lanetan. Besteak beste, *Abandotarra* biribilketa edota *Aires Vascos n° 2* suitea eskainiko dute.

Victor Olaetaren omenez
Dantzari-dantza obraren estreinaldia egingo dute biharko kontzertuan: Victor Olaeta koreografoaren omenez Iñaki Urkizuk sortutakoa da obra. ■ I.E.

'Dantzari-dantza'
obraren estreinaldia
egingo dute bihar

UDA OIN AZPIAN

Babesleak:



ZALDIBARKO
UDALA



OTXANDIOKO
UDALA



GARAIKO
UDALA





Elorrioko txokoak ibilaldiekin ezagutzeko

Elorrioko txoko ikusgarriak ezagutzera ematea. Horixe da *Elorrio oinez* izenagaz ezagutzera eman dituzten bisita gidatuen helburua. Iñigo Murua da ekimenaren bultzatzailea. Santa Anako komentuan dagoen Berrio-Otxoaren museoaz arduratzen da. Elorrio Bizkaia mailan kultur ondare handiena duen herria dela dio Muruak, harrokeriaz barik harrotasunez. Bisitariak museoara joateaz gainera, herriko beste txoko interesgarri batzuk ere ezagutu gura izaten dutela ohartu zen. Eskarari erantzunez, herriko ondarearen gaineko bisitak antolatzen hasi zen: “Eskaera handitzen joan ahala, bisita gidatuak hobeto antolatzeko beharra sortu da”.

Bisita gidatuen proiektuan Sonia Suberbiola eta Ane Soloza-bal ditu bidelagun. Suberbiola Elorrioko alde zaharreko txoko

xarmagarrienak azaltzeaz arduratzen da. Ane Sozolzabalek *Zenita berdea* ibilbidearen berri ematen du.

Bisitariak, “maiteminduta”
“Herria ezagutzera datorrena Elorriogaz maiteminduta joaten da bueltan etxera”. Bisitarien jatorriari dagokionez, jende kopuru handiena Euskal Herriko beste herri batzuetatik etortzen da. Elorriarrek ere sarritan parte hartzen dutela azaldu Muruak, herria sakonago ezagutu guran.

Euskal Herritik kanpo, gehien datozenak Bartzelonako eta Madrilgo turistak dira. Kanariar Uharteetako bidai agentzia baten bidez, kanariarrak ere etortzen dira. Ekimenak izan duen harrearen aurrean, laster bisita gidatuak ingelesez eta frantsesez eskaintzeko aukera ere aztertzen ari dira.

“Eskaera handitzen joan ahala, bisita gidatuak hobeto antolatzeko beharra sortu da”

Informazio gehiago
Tel. zbk.:
629653418
e-posta:
elorrio.oinez@bizkaia.eu

Bidaiatu seguru

GOLF VARIANT

ALLUITZ MOTOR, S.A.

 **AUDI Komertziala**
Estanislao Labairu, 3
Tel.: 94 621 7327
Fax: 94 620 10 75
48200 DURANGO

 **VW Komertziala/ Tailerra**
Alluitz, z/g.
Tel.: 94 620 20 04
Fax: 94 620 09 98
48200 DURANGO

Aske bidaiatu

CALIFORNIA

"Alde Zaharreko kultur ondarea azaltzen dugu"

Zer eskaintzen duzue bisita gidatu honetan? Elorriok zergatik daukan hain ondare aberatsa azaltzen saiatzen gara. Arezpagotxaga jauregian harresiaren aztarnak bisitatzen ditugu eta Elorrio zelan sortu zen azalduz ekiten diogu

Ondoren, nora joaten zarete?
Santa Anako komentua eta Santa Anako gurutzea bisitatzen ditugu. Berrio-Otxoa museora ere joaten gara. Ondoren, Sortzez Garbiaren basilika ikusten dugu, Bizkaiko handiena.

Elorrioko jauregiei lekua egiten diezue ibilbidean?
Bai, Zearsolo jauregira joaten gara. Inguruan ditu gainera, Errebonbilloa eta iturria. Jauregiak eta harmarriak ikusten ditugu eta baita Kurutziagako gurutzea ere.

**Bainuetxerik jarri duzue ibilbideko geldialdi-
ren batean?**
Bai, Besaide dagoen eraikinean lehen bainue-
txe bat zegoen eta hara ere joaten gara.



Arezpagotxaga jauregia - Santa Anako komentua - Santa Anako gurutzea - Berrio-Otxoa museoa - Sortzez Garbiaren Basilika - Zearsolo jauregia - Errebonbilloa - Plazako iturria - jauregi eta harmarriak - Kurutziagako gurutzea - Tola jauregia
Denbora: Ordu bete eta erdi



Sonia Suberbiola
Bisita gidatuen arduraduna



Ane Solozabal
Bisita gidatuen arduraduna



Lourdes - 'Baños Viejos' - Bekoerrota - Uratsa - Zenitakolea - Zenitaaldekoa - Arrialde - Argiñeta
Denbora: Ordu bi
(zapata erosoekin joatea gomendatzen da)



"Erreka da Zenita Berdearen bizkarrezurra"

Errekak zein garrantzia dauka herrian? Errekaren inguruan hainbat jarduera antolatu izan dira Elorrioren historian zehar.

'Baños Viejos'-en ekiten diozue bideari.
Errekari atera zaion azken probetxua bainue-
txeena izan da, XIX. mendean. Ur sulfurosoak
zeuden herrian eta Elorrioren loraldi sasoia izan
zen. Uda batean 900 bainuzale etorri ziren Elo-
rriora. Horrek esan gura du herriko jendeak
horren inguruan lan egiten zuela.

Errota bat bisitatu eta martxan jartzen duzue.
Zenitakoleara joaten gara, eta baserriaren jato-
rria azaltzen dugu. Baserri hau ola izan zen eta
gero errota. Bertako jabeak errota martxan jar-
tzen du bisitariak zelan funtzionatzen duen ikus
dezaten. Antzina erabiltzen zen tresneria azal-
tzen du gainera. Zenitakoleaz gainera, Bekoe-
rrota, Zenitaaldekoa eta Arrialde ere ikusten ditu-
gu kanpotik.

Argiñetara ere joaten zarete.
Bai, Ermitaz gainera, nekropolia ikusten dugu.

Zenbat gauza aurkituko dituzun!

Gidatutako ibilaldiak, Elorrioko arte eta kultura ondarea ezagutzeko

informazioa:
629 653 418
elorrio.oinez@bizkaia.eu



SORGIN

Ibaizabal, 4B

Tel.: 94 681 18 81

Uda giroaz gozatzeko leku aproposa. Bertan ogitartekoak, entsaladak, errazioak, pintxoak eta etxean egindako postreak! Etorri eta dastatu!



INTXAURRE

ELKARTEA

Balbino Garitaonaindia, z/g

Tel.: 94 681 80 70

Gosariak 07:00etatik aurrera astelehenetik barikura. Pintxoak. Terraza 10:00etatik aurrera. 19:00etatik aurrera: entsaladak, bokatak, izozkiak, kafeak... Mahai zerbitzua eta giro euskalduna.



BODEGUILLA

Traña-Matiena

Tel.: 94 681 43 85

Terrazan zein barrukaldean, errazio eta ogitarteko ezinhobeak aurki ditzakezu! Hurbildu zaitez Matiena auzora ez zara damutuko!

PLAZAREN



ZERO

Andra Mari, 6
Tel.: 94 681 22 22

Terraza paregabea Durangoko Alde Zaharraren bihotzean. Etor zaitez gure ogitarteko eta razioak afaltzera eguenetik zaptura! Astelehenetik barikura itxaroten zaitugu inguru paregabea!



XELAI

Nizeto Urkizu, 37-39
Tel.: 94 655 02 66

Elorrion, terraza ederrean, entsaladak, errazioak, ardoak, pizzak, otartekoak, oilaskoak, postreak... Jateko aukera ezinhobea! Etor zaitez eta gozatu inguru paregabea!



MOMOTXO

Plateruen plaza
Tel.: 94 681 10 06

Jateko zein egoteko leku paregabea. Jateko: kazolatxoak, bokatak, entsalada bereziak... Egoteko: terraza nahiz barruko txoko berezietan. Etorri zaitez Momotxo tabernara!

PLAZERA

Euskal Herrian zehar, euskara bidelagun dela

AEK Ibiltariak Euskal Herria ezagutu eta euskara praktikatzeko aukera ematen du

Aurten ere barnetegi ibiltari bi antolatu ditu AEK-k, bat oinez eta bestea bizikletaz ibiltzeko. Helburu bereberekin: hamasei egunez euskara praktikatzea, lagun giroan ondo pasatzea eta Euskal Herria hobeto ezagutzea (herriak, euskalkiak, ohiturak...).

Oinezkoa ekainaren 30ean hasiko da, Pagomakurren (Bizkaia), eta uztailaren 15ean amaïtu, Izaban (Nafarroa). Bizikletaz, aldiz, abuztuaren 4an abiatuko dute martxa Urduñan (Bizkaia), eta abuztuaren 19an iritsiko dira Zarautzera (Gipuzkoa). Barnetegi bateko zein besteko bigarren etapetan Otxandio bisitatuko dute.

AEK-ko Asier Arroïtaren esanetan, "parte hartzen duen jende gehiena berria izaten da norma-lean". Esaterako, azken urte bietan ibiltari ugari etorri dira Madril-dik (Espainia) eta Ibizatik (Balear

uharteak, Herrialde Katalanak). Aurten, Herrialde Katalanetako parte-hartzaile bi izango dituzte. Bestalde, bertsolaritza barnetegia ere antolatu dute abuztuaren 1etik 7ra, Onintza Enbeita eta Xabi Paya bertsolariekin. ■ J.D.

DATUAK

Oinezko barnetegia:

- Ekainak 30 / uztailak 15
- Prezioa: 473 euro
- Izena eman: ekainak 23ra arte (ibiltaria@aeak.org)

Bizikleta barnetegia:

- Abuztuak 4 / abuztuak 19
- Prezioa: 473 euro
- Izena eman: uztailak 20ra arte (ibiltaria@aeak.org)

www.aek.org



"Kuriositateagatik orain 11 urte hasi nintzen euskara ikasten"

Oriol Cardus (44 urte, Tarrasa, Herrialde Katalanak) oinezko barnetegian egongo da. Duela 11 urte hasi zen euskara ikasten, jakinmin hutsez. Euskara garbian erantzun die galderei:

Zer lotura duzu euskaragaz?

Ez dut lotura familiarrik. Kuriositateagatik hasi nintzen ikasten orain dela 11 urte. Euskal Herrira joaten nintzenean, Euskadi Irratia entzuten nuen

eta gustatzen zitzaidan euskararen fonetika eta doinua. Horrek eragin zidan kuriositatea.

Zelan ikasi zenuen?

Bartzelonako hizkuntza eskolan ikasi nuen urte askoan. Ondoren, hiriko euskal etxera joaten hasi nintzen ikasitakoa ez galtzeko eta euskara sarritan praktikatzeko. Orain, EGA titulua atera nahian nabil.

Bazenuen barnetegi ibiltarien berri? Bai. Euskal Herria bertatik bertara ezagutzeko ideia ona iruditzen zait. Ohiko barnetegiak ere ondo daude, baina oinezkoan esperientzia berriak bizi daitezke. Euskalkiak ezagutzeko ere modu ona da. Nik euskara batua hitz egiten dut eta badut interesa tokian tokiko euskalkiak ezagutzeko.

Egunean 25 kilometro egingo dituzue. Mendizalea naiz betidanik, oso gustuko dut ibiltzea eta ez dut uste alde horretatik arazorik izango dudarik. Gainera, erritmo lasaian ibiliko garela esan didate. ■ J.D.



ABADIÑO

Eskolarako liburuak

Erreserbatu EROSKIN

eta JOAN ZAITEZ LASAI

OPORRETARA*

94 623 20 00

*** Beharrezkoa da ISBN zenbakia**



Olatu gaine-ko dantza, Surf Udalekuan

Zutundu Sup&Surf eskolak Zarautzera eroango ditu udan ikasle gaztetxoak

Udako oporraldian surfaikas- teko aukera eskainiko du Zutunduk, bigarren urtez jarraian. Durangoko surf eskola eta taldeak Ikastolen elkarteagaz elkarlanean eratu du Surf Udale- kua. Euskal Herriko dozenak gaz- tek euskaraz ezagutuko dituzte olatu gaine-ko kirolaren nondik norakoak. Zarautzen egingo dute egonaldia, eta surfaz gainera aisial- dia betetzeko hainbat ekintza pre- tatu dituzte. Iazko esperientzia ardatz hartuta, aurtengo udale- kuari ekiteko gogoz daude Zutun- duko kideak.

Zarautzeko Igerain aterpe- txean pasatuko dituzte egunak. 1994 eta 2011 urteen artean jai- otakoek eman ahalko dute izena, eta bost txanda osatuko dituzte: ekainaren 24tik 30era (2000-2001), uztailaren 1etik 7ra (1998-1999), uztailaren 8tik 14ra (2000-2001), uztailaren 15etik 21era (1994-1997) eta uztailaren 22tik 28ra (1998-1999). Gehienez, 30 laguneko tal- deak izango dira. Oraindino ere badago apuntatzeko aukera. Ikas-

le federatuek 400 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek 435 euro. Iaz, guztira, 110 ikasle par- te hartu zuten.

Euskararen erabilera susta- tzeko helburua dauka Surf Uda- lekuak. Horrez gainera, surfaren unibertso zabalean murgiltzeko eta ondo pasatzeko asmoa dau- kate. Ariketak, jolasak, txangoak... Ez aspertzeko egitaraua izango dute gazteek, itsasoa eta surf kul- turaren bueltan.



Aurtengo udalekuari ekiteko gogoz daude Zutunduko kideak; Zarautzen egingo dute egonaldia



Txomin Magdalena eta Julen Ormaetxea

"Surfagaz, edonori ateratzen diozu barre bat"

Txomin Magdalena eta Julen Ormaetxea udalekuko begirale teknikoak dira. Magdalenak dio oso erraza dela ondo pasa- tzea surf ekintzekin. "Edonori ateratzen diozu barre bat". Umeentzako ez ezik, begirale eta irakasleentzako ere experien- tzia aberasgarria da. Julen Ormaetxeak kontatu du: "Umeak iaz oso gustura egon ziren, hori transmititu zuten. Eurek pozik badaude gu ere bai". Dioenez, eboluzionatu egiten dute gazteek. "Ideia- rik ere ez daukan batek aste amaierara- ko surfa egiten du, eta dakienaren kasuan teknikoki hobetzen du".

Goizero ibiliko dira surfean, eta arratsaldean surfagaz zerikusia daukaten ekintzak egingo dituzte. Surfaren his- toria kontatzen duten bideoak ikusiko dituzte, edota meteorologia eta olatuak aztertuko dituzte. Horrez gainera, bestelako ekin- tzak gehituko dituzte: ginkanak, jolas

kooperatiboak, gaubelak... Filosofia azaldu du Magdalenak: "Egizu zuk, zain- du zure materiala, birziklatu...". Ekime- nari ikuspegi ez-komertziala eman gura diote, eta estereotipoetatik urrundu: "Surfa ez da titi politikak, ipurdiak eta jen- de gihartsua".

30 partaide daudenean, bost begi- rale egoten dira eurekin eguneko 24 orduetan. Surf ekintzetarako, begirale teknikoak batzen zaizkie.

Euskara bultzatzeko

Magdalenak dio oso leku gutxi daude- la surfa euskaraz ikasi edo praktikatzeko. "Ez dakit zergatik, surfari gehienak euskaldunak dira-eta". Euskarazko lehe- nengo surf udalekuak dira eurenak. "Kirol moderno eta erakargarria da, eta horren bitartez euskara bultzatu gura dugu".



IREKITA

ekainaren 15etik irailaren 15a arte

ORDUTEGIA

11:00etatik 20:00ak arte

otxandio-ko igerilekuak





VENEZUELA
1800 eurotik aurrera

12 egun

KENIA
1760 eurotik aurrera

7 egun



INDIA JAUREGIETAN
620 eurotik aurrera

7 egun

**AMERIKAKO
ESTATU BATUAK**
998 eurotik aurrera

8 egun



TAILANDIA
595 eurotik aurrera

7 egun

8 egun

COSTA RICA
515 eurotik aurrera



bagoaz

www.bagoaz.com
94 465 75 77
Matiena-Abadiño

Hegaldia edukiz gero, guk bertako zerbitzu pribatua jarriko dizuegu!



San Ferminetara autobus berezia uztailek 7an. Matienan 16:00etan eta Durangon 16:15etan. Buelta 09:00ak inguruan. Prezioa: 20 euro.

MUSIKA > IHESKIDE

“Onena ematen saiatuko gara bihar, betiko ostia txarragaz eta indarragaz”

Elorrioko Iheskide laukoteak ‘... Irabazi arte!’ diskoa aurkeztuko du Plateruenean, bihar; e-posta bidez erantzun dituzte galderak Petra, Tronpi, Kata eta Xaguk, taldeko musikariek

Mauka disketxeagaz kaleratu duzue diskoa. Zelan sortu da aukera hori?

Laurok berriro elkartuta kontzertu batzuk eskaini genituen joan zen urteko udan, eta kanta berriak grabatzea pentsatu genuen. Bestalde, aspalditik geneukan eztabaida Musikherria herri disketxean betetzen genuen paperaren inguruan. Gure egoera pertsonalak zirela-eta eskaintzen genion dedikazio urria ikusita, Musikherriari ezer gutxi aportatzen geniola ondorioztatu genuen. Horretan genbintzala, taldearen lagun baten bitartez, gurekin biltzeko nahia helarazi zigun Maukak, eta elkar-lana abiatzea erabaki genuen.

Zelako esperientzia izanda ‘... Irabazi arte!’ honen grabazioa?

Usurbilgo (Gipuzkoa) Hi Gain estudioan grabatu dugu, Hatitza Harreguy-rekin. Oso esperientzia aberasgarria eta polita izan da, eta era berean gogorra eta neketsua. Polit-a eta aberasgarria, estudioan etxean bezala sentitu garelako: jaso dugun gertuko tratua eta inplikazioa izugarriak izan dira, eta asko disfrutatu dugu kantak itxu-

ra hartzen joan diren heinean. Askok ikasi dugu, gainera. Gogorra eta neketsua ere izan da, kantei mila buelta eman dizkiegulako. Baina balorazio orokorra, izugarri positiboa da, eta emaitzagaz oso pozik geratu gara.

“Aspalditik geneukan buruan gure erreferenteren baten bertsio bat moldatzea”

Aurreko lanekin alderatuta zer ezaugarri dauzka laugarren disko honek?

Beste lanekin alderatuta, gehiago landu dugu *... Irabazi arte!*, bai musikari zein hitzei dagokienean. Agian kantak denbora tarte txikiagoan burutu ditugu, baina denari eman dizkiogu buelta gehiago. Askotan bota izan dugu edo aldatu letrak... Musikari dagokionez, beharbada irekiagoa da disko hau: ukitu ezberdinak sartu ditugu, beti ere Iheskideren esentzia mantenduz bai letratan eta bai musikalki.

Taldearen eboluzioa islatzea baina sustraiak bere lekuan mantentzea izan da helburua: itxurakerietan erori gabe, punk rockaren bitartez, garen moduan agertzea eta pentsatzen duguna azalaratzea.

Mikel Laboaren ‘Martxa baten lehen notak’ kantaren bertsioa ere bildu duzue disko berrian.

Aspalditik geneukan buruan gure erreferentere baten bertsio bat moldatzea. Eta Euskal Herriko kulturaren eta musikagintzan erreferente bat bilatzeko orduan, nor hobe Mikel Laboa baino? Hitzek garrantzia handia izan dute kanta hau aukeratzeko. Oso berba potenteak iruditzen zaizkigu.

Zuzenekoek zer garrantzia daukate zuentzat?

Musika talde batentzako momentu gorenak izan daitezke zuzenekoak. Badute diska batek ez duen gertukotasuna. Burututako lana zuzenean aurkeztea eta kantek sentiarazten dizutena aurrean duzun jendearekin elkartrukatzea izugarria da. Kontzertuetan diska batek eman dezakeen urruntasun sentsazioa apurtu, eta gertutik, diskarekin hain ongi helarazi ezin daitekeen ostia txarra eta bizitasuna helarazi nahi ditugu.

Gura beste kontzertu jotzeko aukera izan duzue?

Kontzertuak jotzeko hainbat lekutatik jaso ditugu eskaintzak eta aukera asko izan dugu. Egia da, baita ere, talde moduan izan ditugun gorabeheren ondorioz, bakoitzak izan ditugun ordutegi kontrajarrien ondorioz eta abar, kontzertu horietariko asko ezin izan ditugula eman. Eskerrak eman nahi dizkiegu jotzeko eskaintzak egin dizkigutenei eta kontzertuetan gure ondoan egon dien lagunei.



Zer prestatu duzue biharko Platerueneko kontzerturako?

Pentsatu, ez dugu larregi pentsatu. Nerbioak edo izango dira, baina, momentuz entseatu eta entseatu gabiltza. Iheskideon onena ematen saiatuko gara Plateruenean bihar, betiko ostia txar dosiagaz eta indarragaz.

Zeozor gehitu nahi?

Lanean eta laguntzen izan ditugun iheskideak aipatu gura ditugu: Eneko, Jurgi, Jurdan eta Itsaso preso politikoak, Koldito, Kasta, Lander, Purutxo, Eka... ■ I.E.

“Uste dugu kantak zabaltzeko oso tresna interesgarria dela webgunea”



Taldearen inguruko askotariko materiala ipini dute www.iheskide.org helbidean: “Uste dugu kantak zabaltzeko oso tresna interesgarria dela webgunea”. Beraien lagun Kastak diseinatu du webgunea, eta besteak beste, Zaldibarko Kredits Produktionseko kideekin grabatu zuten Arrano beltzaren hegaldiak bideoa dago ikusgai.

“Eskerrak eman nahi dizkiegu jotzeko eskaintzak egin dizkigutenei”

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



EKAINAK 15 21:30ean
DURANG(H)OTS JAM SESSION
KONTZERTUAK. Sarrera doan.



EKAINAK 16 22:00etan
IHEKIDE
Disco aurkezpena
KONTZERTUA. Sarrera: 5euro.



EKAINAK 20 21:00etan
MADBALL
KONTZERTUA. Sarrera: 15,50-18euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

LIBERTIA

Hortzmuga Antzerki Taldea
SANTA ANA PLAZAN



Ekainak 24 • 19:00
UDA KALEAN BIZI



San Agustin
KULTUR
GUNE
DURANGOKO UDALA

Hitz liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Erreskatea: iruzur politikoa

Sekula egindako iruzur politikorik handiena da, murrizketa berri eta handiagoak ekarriko dituen urratsa, krisiaren konponbidetik urruntzen gaituen erabaki politikoa. Ez gaitzela engainatu!

Egoera hau ekiditeko hiru urte murrizketak inposatzen ibili eta gero, erreskatearena garaipen politikoa bat dela eta guztion onerako dela esatea herritar irakurleentzat da. Krisiaren aurrean egin diren politika guztiak porrot hutsa dira; krisian sakontzeko besterik ez dutelako balio izan, langileok behin eta berriro iragarri eta salatu bezala. Ez da diru publikoaz banketxeak laguntzen dituzten lehenengo aldia, 2011ko abenduak datuek diote 141.000 miloi desbideratuak zeudela ja modu batean edo bestean. Horregatik egin dituzte egin dituzten murrizketak. Baina ez da horretan bakarrik geratzen sistema finantzieroari ematen ari zaiona, gogoratu, pentsioen erreforma egin zela sistema pribatua bultzatzeko eta sistema finantzieroaren negozioa handitzeko.

Politika etahonen guztiaren emaitza ezaguna da: langabezia, bazterketa soziala eta pobrezia. Bitartean, banketxeek espekulatzen jarraitu dute. Ez da erabaki bat bera ere hartu sistema finantzieroaren praktika hori debekatzeko edo kontrolatzeko. Sistema finantzieroaren zuloa jasanezina bilakatu denean eta agerian geratu denean estatu espainiarrak ez dituela bitarteko nahikorik banketxeen zuloari aurre egiteko, azken urteetako bidea goitik behera aldatu beharrean, gu guztion izenean mailegu ikaragarri bat eskatu dute, langileok eginez zulo horren erantzule zuzenak.

Gainera, gezurretan ari dira, erreskate hau bai ala bai ordainduko baitugu langileok. Estatua da diru hori jasoko duena beraz Estatua da diru hori itzuli beharko duena. Eta ezin dugu ahaztu, estatu espainiarrean iazko udan konstituzioa aldatu zutela banketxei zor zaien dirua ordaintzea lehentasunezkoa izateko, herritarren eskubideen gainetik. Arazoa ez da ez dagoela dirurik ekonomian eta babes sozialean inbertitzeko, dagoena sistema finantzierora joango dela baizik. Eta geroz eta gehiago behar delarik, murrizketak handiagoak izango dira. Hauek ez dira neurri ekonomikoak, herritarrek bazterketa sozialera eta pobrezia kondentatzea erabaki politikoa bat da.

Euskal Herria estatu espainiarrak hartutako bideari lotua jarraitzeak bide horretan gu ere itotzea ekarriko du. Erreskatea onartzea erreskateak ekarriko dituen derrigorrezko politikak onartzea da, eta hori eraso zuzen bat da bertan politika propioak egiteko dugun behararen kontra.

– Euskal herritarrei hitza ematea exijitzen dugu, gure etorkizun ekonomiko, sozial eta politikoa askatasunez erabaki dezagun.

– Euskal instituzioei erreskatearen kontra agertzeko eta eratorritako neurri eta politikak hemen ez aplikatzeko eskatzen dugu.

– Eredu ekonomiko eta sozial berri bat eraikitzea da guzti honen aurrean dagoen alternatiba bakarra. Euskal eragile politiko, sindikal eta sozialen esku dago alternatiba horren eraikuntzan benetako urratsak ematea. Ez bagara eztabaida horiek benetan egiten hasten, Euskal Herriak ez du benetako alternatibarik izango.

Euskal herritarren euro bakar bat gehiago ere ez dezatela bideratu espekulatzaileen eta egoera honen erantzuleen eskuetara.

Durangaldeako LAB sindikatua

Txirikillatik Abadiñoko alkateari

Txirikilla 2011ko uztailean sortutako Abadiñoko aisialdi taldea da. Abadiñoko ume eta gazteek herrian duten aisialdi eskaintza urri eta eskasak arduratuta herriari eskaintza aberats, anitz eta zabala emateko asmoarekin sortua. Urte bete eskas honetan ez gara geldi egon. Gure baloreetan oinarrituta, hainbat ekintza antolatu ditugu ume eta gaztetxoentzat. Gabonetako opor sasoian izan zen gure lehen

eskaintza. *Orienting* froga bat gazteekin, ondo pasatzeaz gain gure herriko auzoak ezagutaraztea zuelarik helburu. Txikienekin, berriz, Abadiñoko kultura, mitologia eta inguruarekin erlazioatutako hainbat tailer eta jolas.

Aste Santuan izan zen hurrengo deialdia. Bizikleta martxa batekin, auzoak ezagutu zituzten herriko umeek. Jaietan ere ez gara geldi egon, San Prudentzio eta San Trokaz jaietan herri kirolak antolatu baititugu parte hartu nahi izan duten guztientzat. Aipatu beharra dago gure eskaintza herriko ume guztiei zabaldu nahi izan diogula. Hori dela eta umeek ez dute ordaindu beharrik izan ekintzetan parte hartzeko eta lanean egondako begiraleok bolondres lana egin dugu. Hau guztia gure herriari eta kasu honetan herriko ume eta gazteenei eskaintzen ez zaien aisialdi duin eta aberatsa emateko asmo zintzoenarekin.

Baina denbora tarte honetan harritu gaituenik ere izan da. Otsailean dei bat jaso genuen udaletxetik eta udalekuetarako proiektu bat aurkezteko gonbitea luzatu ziguten. Ez ziren makalak leihaketa hartan eskatzen ziren baldintzak, ez behintzat Txirikilla bezalako aisialdi talde herrikoi batentzat; baliabide ekonomikoak, materialak, aurrekontua, xedapen teknikoak... Udalekueetan zehar burutu behar zen proiektua bera itzalpean gelditzen zen hainbeste konturen artean; gure ustez, benetan garrantzitsuena eta gehien baloratu beharko litzatekeena.

Ez gintuzten baldintza haiek kikildu. Aisialdi enpresa handientzako eskakizun haiek alboratu eta herriko ume eta gaztetxoentzat proiektu egokiena burutzeko lanean zentratu ginen buru belarri. Txikienez zako hamabost eguneko eskaintzaz gain, hamasei urte arteko gaztetxoentzako udaleku ibiltari bat ere proposatu genuen, beraiek baitira aisialdi premia handiena dutenak herrian. Bigarren proposamen hori aurkezteaz batera udaletxeetako atzera bota ziguten, inongo argudiorik gabe.

Honen aurrean esan beharra dugu udalekuak antolatzerakoan gure baloreak oso presente izan ditugula eta krisi egoera ikusita autobus kostua murriztu ahal izateko antolaketak, ordaindu beharrik ez dauden irteerak eta batez ere materialen berrerabilpena sustatzen zuten ekintzak proposatu genituela, hamabost eguneko udaleku finkoetarako udalekuean aurrekisten zen diruarekin hilabeteko udalekuak proposatu genizkielarik herriko ume eta gaztetxoentzat. Hainbat gorabeheraren ondoren heldu da udalekuearen erabakia, udalekuak hasteko hiru aste besterik falta ez direla: Bilboko Eragintza kultur elkarteari eman dio udalak Abadiñoko udalekuak antolatzeko ardurarik.

Honekin guztiarekin Abadiñoko alkatearengana zuzentzen gara, bera baita tankera honetako erabakien arduradun: jakin ezazu, Nava-rron, oraingoan txarto jokatu duzu. Herrian aisialdi talde bat egonik ez duzu ezertarako kontuan hartu, urte osoan udalekuek herriko umei eskaintzen dien ekintza bakarra izanagatik ere. Herriko gazte talde baten urte osoko lana saritu eta herritarrek udalekueetan izan zezaketen parte-hartzea bultzatu beharrean, ikuspegi merkantilista eta azpikontratazioarako joera agerian utzi duzu udalekuak leihaketa bidez esleitzuz.

Ez duzu Abadiñoko gabeziei erantzungo dien proiektu egokiena bilatu, ez duzu herriko begiraleak lanean aritzeko jarrerarik hartu eta are larriagoa dena, ez duzu herriko ume eta gazteentzako egokiena izango litzatekeen aisialdi proiektua aukeratu. Urte osoan zehar burutu zitekeen aisialdi eskaintza hankamotz utzi duzu erabaki honekin. Hala ere, jakin ezazu gure proiektuarekin aurrera jarraituko dugula. Herriari benetako aisialdi proiektu bat eskainiz eta herriaren beharrezan araberako eskaintza burutuz. Gure herriko ume, gazte, txoko eta ohiturak beste inongo enpresa handik baino hobeto ezagutzen ditugulako eta benetako aisialdi proiektu herrikoi eta parte-hartzailean sinesten dugulako.

Txirikilla Aisialdi Taldea

■Sei hankako mahaia

Urdaspal
Bolinaga
Bildu

Nartziso

Gaurkoan Nartzisoren historia-ekin nator, bai bere buruaz maiteminduta zegoenaz eta bai bere inguruan zegoena ikusteko gai ez zenaz, uste baitzuen bera zela guztiaren erdigune. Ez da *milonga* bat, Nartziso hau Durangon baita ukagu.

Arraroa izan arren, orain, bai, orain erabaki dira Durangon aurrekontuak. Bost hilabetez egon gara aurrekontu gabe eta hori Nartzisok (PNV), hauteskunde kanpaina behin eta berriz aipatu zuela zeukan esperientzia handia. Ez zuen behar beste inorkesatea, berak bakarrik jarri zuen domina hori paparrean.

Aurrekontuak aztertzerako orduan ere arazo handiak izan genituen informazioa ez zegoelako edo informazio hori eman nahi ez zigutelako. Hau oso ohi-koa da Durangoko udaletxean, zinegotziak sarritan dokumentu berbera behin eta berriz eskatzera behartuta gaudelako, eta batzuetan asko luzatzen dira epeak dokumentu sinpleak gure eskuetara iristeko. Nartzisok (PNV) udaletxea berea denaren sentimendua baitu eta ez da ohar-zen herritar denena dela. Agian izango da ez duelako bere zilborretik haratago ikusten.

Horretaz gain gezurretan ere aritu dira, medioetan esan baitute elektorismoaz jokatu dugula ez genuelako hurrengo Lehendakariaren alderdiarekin argazkirik nahi. Guk ez dugu inongo gonbidapenik jaso beraiekin batu eta gure iritzia emateko. Nartzisok (PNV) berea bakarrik ikusten duenez ez zaiolako beste inor axola eta bere buruari estima handiegia dio.

Azkenik, aurrekontuak luzatu (aurreko urtekoak errepikatu) egin dira, alor bakoitzerako bideratuta zegoen dirua berdina izan behar delarik. Baina Nartzisori (PNV) ez zaizkio gustatu aurrekontuak eta arriskua dago dekretutza bidez (beraiek soilik erabakita) nahi duen aldaketak egiteko, bere gustukoak izan arte.

Herritarren lana da Nartzisori (PNV) azaltzea beste bat baino ez dela, ezin duela nahi duena egin, talde batean dagoela eta gehiengoak zerbait erabakitzen badu bete egingo dela.

Laguntzaileak:



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurretak
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko ekainaren 15a
10. urtea - 463 zk.


Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onandia,
Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Juanra de la Cruz eta Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokirola

KIROLAK >

“Arlo pertsonalean bizitako une latzak taldearen ibilbide bikainak gozatu dizkit”



Koikili Lertxundi, Otxandioko Andikona plazan, erregalatu zizkioten oroigarrietako bategaz.

Bost urteren ostean, Koikili Lertxundik Athletic utziko du. 31 urte gaz, futboleko jarraitzeko asmoa duela dio. Zintzotasunez erantzun die galderei, Athletic, Bielsa eta Vulcanori buruzkoei, besteak beste.

31 urte dituzu. Futbolari lege jarraitzea da zure asmoa?

Bai, hori da asmoa eta gogotsu nago. Oraindik fisikoki ondo sentitzen naiz eta zer eskainia badudala uste dut. Lehen mailan jokatu ditudan bost urteetan esperientzia handia hartu dut eta maila pertsonalean aritzeko hainbat denboraldi geratzen zaizkidala sentitzen dut. Ea zorte apur batez talde interesgarriren bat aurkitzen dudan.

Orain zein da zure egoera?

Ez dakit gauza handirik. Ordezkariek oraingoz itxaron egin behar dela esan didate eta zain gaude. Oraindik ez dago ezer konkreturik.

Athleticeko urteetan, zein momentu nabarmenak duzu?

Athleticek fitxatu nindueneko unea hunkigarria izan zen. Bizitza osoan borrokatu nuen ametsa modu formalean egia bihurtu zitzaidan. Kirol arloan, final denak bereziak izan dira, baina partidu bat bereiztekoan Errege Kopako Sevillaren kontrako finalerdia nabarmenduko nuke, San Mamesen jokatu genuen itzulikoa. Athleticek urte asko zeramatzan finalera sailkatu ezinik. Zenbat zale, zenbat belau-

naldi finalik ikusi barik! Benetan hunkigarria izan zen.

Askok Xixongo Sportingean kontrako final laurdenetako partidua ere gogoratzen dute, galtzontzilotan amaitu zenuen hura.

Finalerdietarako sailkapena lortu eta Xixonera joandako Athletic zaleengana hurbildu ginen. Kamisetak zaleengana bota genituen. Hainbeste emozionatu nintzen, prakak ere bota nituela! Orduan ez nintzen konturatu izkina hartatik aldageletako tunelera zer distantzia luzea zegoen. Zenbat kazetari inguruan! Apur bat lotsatuta eta guzti joan nintzen. Harrezkero askotan gogoratu izan didate une hori (barreak).

Aurten ez duzu minutu bakar bat jokatu.

Urte gogorra izan da. Hasieratik taldetik kanpo, baztertuta gainera, aukera berdintasunik gabe. Zorionez, urtea aurrera joan ahala tratua aldatu egin da eta denok aukera berdina izan ditugu. Azkenean hainbat deialditan sartzea lortu dut eta taldearen ibilbideagaz gozatu dut. Arlo pertsonalean bizitako une latzak, taldearen ibilbide onak gozatu dizkit.

Bukaresteko finalera, jokalariek denak elkarrekin ez bidaiatzea erabaki zuen Bielsak.

Pena handia izan zen. Athleticen indarguneetako bat taldean dagoen batasuna da. Egun historikoan taldea banatzea haserreturik bizi izan nuen. Bukarestera denok elkarrekin ez joateko erabakia ez nuen ulertu.

Zelakoa izan da hartueman Bielsagaz?

Bielsaren hartueman antzerakoa da jokalariek denekin. Batez ere harreman pertsonalean oinarritzen da: partiduetarako argibideak, zuzenketak... Hortik kanpora ez dago hartueman handirik. Nire kasu pertsonalean, hasieran ez nuen hartuemanik. Gerora beste edonori emandako tratua bera izan nuen.

“Bukarestera denok elkarrekin ez joateko erabakia ez nuen ulertu”

Bielsa beste urtebete geratuko da. Zer eman dezake taldeak?

Oinarri sendoa dago eta taldearen esfortzuak hobeto kudeatuz gero, maila altua emango du. Aurtengoa errepikatzea gaxa da, baina zergatik ez? Gaztetasun eta ilusio handia dago eta aurtengo antzeko egoeretara heldu daiteke.

Zaleei titulu bat eskaini ezinaren pena geratu zaizu?

DATUAK

Koikili Lertxundi, 31 urte, Otxandio.

Ibilbidea:

- 1998/99: Aurrera Vitoria
- 1999/01 Osasuna B
- 2001/2003: Gernika
- 2003/04: Beasain
- 2004/05: Gernika
- 2005/07: Sestao River
- 2007/12: Athletic

Jakina. Pertsonalki zein zaleentzako denbora gutxian lau final galtzea oso gogorra da eta arantzatxo geratzen da. Baina lau horietatik hiru maila itzeleko Bartzelonaren kontra izan dira.

Futboleko beste protagonista batzuk ere izan ditu Otxandiok: Vulcanori eta Iñaki Garmendia.

Zorionak eman nahi dizkiot Vulcanori. Badakit oso urte ona egin dutela eta merezi zuten igorera. Gainera, herriko jokalariek lehenetsi dituzte eta hori inportantea da. Iñaki igo egin da Mirandesez. Txiki-txikitatik ezagutzen dut. Beti baloiaren inguruan ibili izan gara herrian, bere anaia Anderregaz, nire anaia Xabigaz... Lan asko egin du eta merezitako saria jaso du.

Itzarri Consulting enpresaren bidez futboleko euskara normalizatzeko ahaleginetan zabilta.

Formakuntza homologatuari dagokionez, liburu bat aurkeztu berri dugu. Euskarazko eduki horri esker, lehen mailako entrenatzaile titulua euskaraz ateratzeko modua egongo da irailetik aurrera. Formakuntza ez homologatua, gaztetxoaren entrenatzaileei zuzenduta eskola teoriko-praktikoak egin ditugu. Irailean hiru eskola sortu gura ditugu: Durango-lurreta, Abadiño-Elorrio eta Berriz-Zaldibarko monitoreak batuko ditu. ■ J.Derteano.

“Gaztetxo asko batzeak harritu ninduen gehien”



Orain hiru urte sortutako Otxandioko Koikiliren Lagunartea ofizialki aurkeztu zuten joan zen barikuan. Andikona plaza jendez bete zen. “Gaztetxo asko batzeak harritu ninduen gehien”. Athleticeko ordezkariak eta Gatikana eta Bilbo-ko San Ignacio auzoan dituen lagunarteko ordezkariak ere joan ziren: “Herri kideen erantzuna pozgarria izan da eta harro sentitzeko modukoa”. Urteetan emandako sostengua eskertu zien bertaratuei eta hunkitu egin zen osaba gogoratu zuenean: “Dagoen lekuan dagoela, badakit pozik egongo dena hau ikusten”.

> Bideoa: www.anboto.org

Punteria zorroztu behar dute mailaz igotzeko

Abadiñoko Lagun taldea Euskal ligara igotzeko promozioan dabil; etxean 1-4 galduta, golak behar dituzte etzi Gasteizko itzulikoan



Abadiñoko Lagun taldeak gutxienez lau gol sartu behar ditu mailaz igotzeko. Kepa Aginako

Abadiñoko Lagun taldeak aldapa gora du igoera promozioa. Gasteizko Lakua taldearen kontra jokatzen ari den kanporaketatik irtengo da Euskal ligara igoko den azken taldea. Joanekeoan 1-4 galdu zuten etxean. Domekan, gol asko sartu behariko dituzte emaitza iraultzeko.

Dena dela, abadiñarrak posible dela sinestuta daude. Joanekeo partiduan "askoz gehiago izan ginen", adierazi du Jon Jimenez entrenatzaileak: "Zutoinak, langak... hamaika aukera huts egin genituen. Zenbat bider izan genezake hain zorte txarra? Gertatu zena ez zen normala".

"Hamaika aukera huts egin genituen. Gertatu zena ez zen normala"

Gasteizko taldearen lau golek ere badute euren istorioa: "Bat geure atean sartu genuen, beste bat euren zelaitik sartu zuten eta azkenengoa partidua amaitzeko segundo bakarraren faltan heldu zen. Ezin genuen sinestu gertatzen ari zena".

Horregatik guztiagatik, Gasteizera oso kontrako emaitza

daramaten arren, buelta emateko esperantza dute. Talde osoa jokatzeko moduan dago; ez dute lesionaturik eta ez txartelekkin zigortutakorik.

Pazientzian dago gakoa

Domekan, 17:30ean hasiko da partidu erabakigarria, Abetxuko kiroldegian. Abadiñoko Lagunek badaki baloiaren jabetza euren izango dela. Gasteizko Lakua atzean sartuta egongo da, kontraerasoan irteteko zain. Kanpoko goleko balio bikoitza dutenez, gutxienez lau gol sartu behar dituzte. Pazientzian dago gakoa: "Lehenengoa sartuta bestek segidan etor daitezke". ■ J.D.

ADITUAREN TXOKOA

Ruben Perez
Euskaltel Euskadiko
txirrindularia



Badator Frantziako Tourra

Urteko kirol hitzordu garrantzitsuena hasteko hilabete baino gutxiago falta da. Badator Frantziako Tourra eta denok horra begirako prestaketa osatzen ari gara. Txirrindulariok aitzoa zorrozten dabilta. Batzuek Dauphine Liberen (Frantzia) ibili dira eta beste batzuk Suitzako Tourrean gabilta. Lasterketa biak oso onak dira Frantziako lasterketari begira prestaketa osatzeko eta sasoi puntu egokia hartzeko. Lasterketa gogorak dira, oso azkar ibiltzen gara eta horrek erritmoa eta sasoi hartzen laguntzen du.

Suitzako itzulia amaitu ondoren, hamalau egun bakarrik geratzen zaizkit Liejan (Belgika) Frantziako Tourra hasteko eta horren aurretik Espainiako txapelketan parte hartuko dut, Salamankan. Etxean egin ditudan entrenamenduekin eta egun hauetan lehiaketa ofizialetan pilatu ditudan kilometroekin tourrera ehuneko ehunean heltzea espero dut.

Samuel Sanchez erori egin zen Dauphineko lehenengo etapan, baina ematen du ez duela ezer larririk eta bera izango da Euskaltel-Euskadiko liderra. Nire ustez, ondo badago podiumean sartzeko aukera handiak izango ditu. Niri ahal dudan guztian Samueli laguntzea egokituko zait. Horrez gainera, ihesaldiren batean sartzen saiatuko naiz, eta etaparen bat irabazteko aukerak izatea espero dut. Ikusiko dugu zer ematen duen oso interesgarri datorren Frantziako lasterketa nagusiak.

**Erredakzioan itzulia*

Batzar orokorra egingo du Kulturalak egunean

2013ko aurrekontuak proposatuko dituzte

Durangoko Kulturala futbol klubak urteko batzar orokorra egingo du ekainaren 21ean, 20:00etan, Durangoko Maristak ikastetxean.

Bertan hainbat gai jorratuko dituzte. Lehenengo, amaitu berri den denboraldiko kudeaketa ekonomikoaren berri emango dute. Jarraian, dato-

rraren denboraldiko aurrekontuak proposatuko dituzte. Ondoren, zuzendaritzako kideek hainbat ideia plazaratuko dituzte batzartutakoen artean eztabaidatzeko. Azkenik, klubaren kirol arloko ebaluazio orokorra aztertuko dute. Bertaratzen direnak dudak argitzeko galdera txanda bat izango dute. ■ J. D.

Santxo eta Tolosaren ausardia nagusitu zen Mallabiko finalean



Xabier Santxo eta Xabier Tolosa gipuzkoarrek irabazi dute aurtengo Biharko Izarrak txapelketa, Mallabian. Final estuan 22-21 menderatu zituzten Jon Landaburu elorriarra eta Ander Elezkano zaratamoarra. Tolosak indartsu jo zuen eta Santxo ausart ibili zen aurrean. Landaburuk asko eutsi eta gutxi galdu zuen. Elezkanok ondo jokatu zuen, baina bere mailatik behera ibili zen. Bestalde, lau terdiko finala Asier Agirrek irabazi zuen.

II.Frontenis eta Pilota Txapelketa abian Elorrion

Gaztetxeak antolatuta, datorren astelehenean II. Frontenis eta Pilota Txapelketa hasiko dute Elorrion, plaza alboko pilotalekuan. Astelehen, martitzen eta eguenetan jokatuko dituzte partidak, eta bikoteka ibiliko dira. Frontenisean 30 edo 22 tantora jokatuko dute, eta pilotan, berriz, 18 tantora izango dira partidak.

Hilabete inguru iraungo du txapelketak. Kanporaketen ostean, uztailaren 13an finalerdiak jokatuko dituzte, eta finalak hurrengo egunean, 14an izango dira.

Aurreko urtean legez, txapelketako parte-hartzaile guztiek bazkaria izango dute uztailaren 22an. ■ A. U.

Atxondok Bizkaiko herri artekoa irabazi du gaztetxoan mailan

Atxondok lehenengoz irabazi du Bizkaiko herri arteko pilota txapelketa gaztetxoan mailan. Larrabetzun jokatutako finalean Orozko 2-1 menderatu zuten. Benjaminetan tanto bateko aldeagaz galdu zuten Ander Arrasatek eta Aitor Gallastegik. Kimu eta haur-kategorian irabazi egin zuten Egoitz Axpe-Josu Eguren eta Dani Rodriguez-Renato Nuñez bikoteek.





Uztailaren 22an Austrian jokatu da Munduko Txapelketa, eta han parte hartuko du Lejarretak.

Ereriko batek hondatu dio urte biko prestaketa

Inaki Lejarreta ez dago Joko Olinpikoetarako hautatuen artean; apurtutako saihests batek ez dio ehuneko ehunean lehiatzen utzi

Inaki Lejarretak ezingo du orain lau urte Pekingoko Joko Olinpikoetan irabazi zuen diploma olinpikoa defendatu. Carlos Coloma, Sergio Mantecon eta Jose Antonio Hermida dira Londresen mountain bikean lehiatzeko hiru hautatuak.

Berriztarra zoritxarreko eroriko batengatik geratu da kanpoan. Maiatzaren erdian gertatu zen, Txekiar Errepublikan, Munduko Kopako hirugarren probaren atarian. Entrenatzen zebilela erori eta min hartu zuen saihests batean. Hala ere, lasterketan parte hartu eta 44. amaitzea lortu zuen, "sufrimendu handiz", gogoratu duenez. Ez zen postu ona, Kopako lehenengo lasterketa bietan 17. eta 21. sailkatu zela kontuan hartuta.

Bazekien saihestsa ez zegoela ondo, baina Joko Olinpikoak lau urterik behin dira, eta urte biko prestaketa, planteamendua eta esfortzu guztia, postu on baten baitan egon zitekeen: "Begiak itxi eta belarriak estali nituen". Frantzian jokatu zen Munduko Kopako laugarren proba zen Cristobal Sanchez hautatzailea konbentzitzeko azken aukera, txirindulari guztientzat. Lejarretak, minez, ezin izan zuen amaitu. Sanchezek

Ezbeharraren aurretik Sanchezek esan zion hautatuen artean zela

handik hamar egunera eman zuen hautatuen zerrenda.

Egoeraren alderdi etsigarriena hori da: bide zailena egina zuela. Ezbeharra baino lehen Sanchezek esan zion hautatuen artean zela Lejarretari. "Fisikoki txarto banengo edo hautatuak ni baino hobeto ibili izan balira ez litzateke hain mingarria izango, baina ez da kasua".

Joko Olinpikoak hasten direnerako saihestsa erabat osatuta izango du: "Hitzordu berezia da eta presioari eusten jakin beharra dago. Nik orain lau urteko esperientzia dut eta horrek asko balio du. Diploma olinpikoa irabazi nuen gainera. Baina hori guztia ez zaie ni hautatzeko nahikoa iruditu", adierazi du berriztarrek, penaz. ■ J. D.

Judith Arndtek irabazi du Emakumeen Bira

Eneritz Iturriagak euskaldun onenaren maillot zuria jantzi zuen, 2011n legez

Azken etapako azken kilometroetan erabaki zen Emakumeen Bira. Urduñan hasi eta lurretan amaitu zen etapan, Emma Pooley liderra atzean geratu zen Urkiola jaisterakoan. Horren jakitun, aurrekoek gogor jo zuten, eta britainiarra aukera barik utzi. Ondorioz, Judith Arndtek bigarren bider irabazi zuen Bira (aurrekoa, 2009an) eta Emma Johansson eta

Annemiek Van Vleuten geratu ziren bigarren eta hirugarren.

Eneritz Iturriagak euskaldun onenari dagokion maillot zuria jantzi zuen bigarren urtez jarraian (27. postuan aurten). Osintxu eta Zizurkilen jokatu diren Espainiako Kopako azken lasterketa bietarako sasoi onen dagoela adierazi du. Orain, Espainiako Kopako sailkapeneko liderra da abadiñarra. ■ J.D.



Johansson, Arndt eta Van Vleuten podiumean. Jon Iglesias

Elorrioren errugbi eguna antolatu dute biharko

Aurten gaztetxoek esparru propioa izango dute errugbian jokatu eta bazkaltzeko

Elorrio Rugby Taldeak errugbi eguna antolatu du zapatarako. Aurten arte, nagusiak eta gaztetxoak ordu eta zelai berean batzen ziren, baina urteko gero eta parte-hartzaile gehiago daudenez, aurten eguna bitan banatu dute: goizean gaztetxoentzako eta arratsaldean nagusientzako. Modu horretara, gaztetxoek ez dute nagusi

siek noiz amaitzen duten zain egon beharko. Errugbi zelaian batuko dira 12:00etan eta seguruenerik rugby tag modalitatean jokatu dute. Ostean, paella bazkalduko dute.

Nagusiak 15:30ean elkartuko dira. Ondoren, 21:00etan afari herrikoia egingo dute frontoian; suzko zezenak ere egongo dira gauden. ■ J. D.

Jon Aranburu eta Andoni Aldape irabazle Durangoko txapelketan



Jon Aranburu durangarrak eta Andoni Aladape mallabiarrek Peterren oroimenezko pilota txapelketa irabazi zuten nagusien mailan. Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan jokaturako finalean, 22-19 menderatu zituzten aurkariak. 22 urtez azpikoa, Iturbe gernikarrak eta Gomez igorrearrek irabazi zuten txapela. Durangoko pilota eskolako finalean, aldiz, Aritz Zalbidegoitia, Harriet Cabezas eta Andoni Albearrek irabazi zuten.

Zarautzen podiumera igo da Frades

Zarautzeko Iron man erdian hirugarren sailkatu zen Gurutze Frades. Era berean, distantzia luzeko Euskadiko txapelketan txapeldunorde geratu zen. Bere blogean aitortu duenez, helmugara sartu aurretik atera zioten argazkia ondo gordeko du, "Zarautzen podium bat ez delako egunero lortzen".

Atzetik aurrerako bidea egin behar izan zuen iurretarrak. Igeriko eta bizikletako tarreak amaitu eta korrika hasi zenean sei minutu pasatxora zuen podiuma. Apurka-apurka aurrekoei aldean eta hirugarren kokatu zen. Azken kilometroan gozatu egin zuen: "Denak txaloka, kale arteetan sentitu nuen itzela da". ■ J. D.

Babesleei euren sostengua eskertu die Tabirako-Baquek

Tabirako-Baque saskibaloi klubak babesleen laguntza eskertzeko ekitaldia egin zuen joan zen barikuan, Landako Kiroldegian duten egoitzan. Klubaren urteko emaitzen berri eman zuten bertan. Emakumeen talde nagusiak egindako denboraldia azpimarratu zuten eta beheragoko mailatan izandako lorpenak ere nabarmendu zituzten.



AISIALDIA >

mendi ibilbideak



Tontorren handitasunaz jabetzeko ibilbidea, tontorretara igo barik

Mendiak euren magaletik ikusteko aukera eskaintzen du ibilbide erraz honek; Pol-Poleko zabalgunean amaitzen da

